

3,80 euro
AEKren aldizkaria
2024ko maiatza

aizuru!

487

AEKn,
uda giroan

Araba,
historiaurreko
guda leku

Orreagan,
erromesen
zaindari

Julen Axpe,
furgonologoa



OLATZ ARRIZABALAGA
ETORKIZUN
HANDIKO BETERANOA



Lezoko Unibertsitateko Udala

Euskaraz zara,
euskaraz gara.

Pantailak euskaraz konfiguratu!
Kontatzen du!

Kontatzen dugu!

Lehen hitza Euskaraz!



www.lehenhitza.eus

▶▶
EUSKARA
ZERBITZUA

☎ 943 513 476
euskara@lezo.eus
www.lezo.eus

FOKU



Teresa FERNANDEZ CRESPO

23



Andoni URBISTONDO

27



12

Julen Axpe
arin-arin



Jill WELLINGTON-PEXELS



23

Hezurak, hizketan

27

Orreagako
aterpekoak

30

Zelan euskaraz?
Andrea Bartolo

31

Udako ikasleen
testigantzak

34

Kultur albisteak



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILAK
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEZAK)
DIRUZ LAGUNDUA

Koordinazioa: Eñaut Mitxelena. **Erredakzioa:** M. Egimendi, Eñaut Mitxelena.

Kolaborazioak: Joxe Rojas, Gotzon Hermosilla, Aitor Fdez. de Martikorena, Jon Rejado, Inhar Iraizotz, Onintza Enbeita, Alessandro Ruta, Andoni Urbistondo, Maider del Olmo, Marcos Tedin, Esti Lanao.

Hizkuntz arduraduna: Usoa Alberdi. **Argazkilariak:** Amaia Zabalo, Mikel Martinez de Trespuentes, Javi Colmenero. **Azaleko argazkia:** Mikel Martinez de Trespuentes. **Diseinua eta maketazioa:** Eba Arratibel. **Komikiak:** Eñaut Aiartzaguena Bravo, Zaldi Eroa.

Publizitatea: Xabier Garmendia • Iztueta kalea 3, behea • 20001 DONOSTIA • Tel. 607 596 112 • aizupubli@aek.eus.

Egoitza nagusia: Iztueta kalea 3, behea • 20001 DONOSTIA • Tel. 607 638 660 • aizu@aek.eus.

Administrazioa eta harpidetzak: Juanma Etxebeste • Iztueta kalea 3, behea • 20001 DONOSTIA • Tel. 607 532 846 • juanma-e@aek.eus.

Inprimaketa: Antza.

L. G. BI-242881

ISS 1132-1709

Aizu! ez du nahitaez bat egiten kolaboratzaileen iritziekin. Erantzukizuna egileena da.



FOKU

Ikurrak, erabiltzeko

Berrogei urteren ostean, Espainiako Kopa irabazi dute Athleticeko gizonetakoek. Inor gutxi izango da, honezkerok, horren berri izan ez duenik: garaipenak milaka zale poztu zituen moduan, ospakizunak milaka lagun mugiarazi ditu. Horren lekuko, Sevillako kaleak finalaren egunean, eta Bilbokoak aurrekoetan eta ostekoetan. Batez ere, berrogei urteren ostean, gabarra Bilboko **itsasadarrean**¹ uretaratu zutenean. Milaka eta milaka lagun garaipena poz **eztanda**² jendetsuan ospatzen. Irudi politak eta gogoangarriak utzi zituen egunak, baita nabarmentzeko beste

hainbat kontu ere. Esaterako, Asier Villalibre jokalaria Bilboko udaletzeko balkoitik euskararen alde egindako aldarrikapena. Bestelakoan, euskarazko berbak nahi baino gutxiago entzun ziren ospakizunetan: Athleticen *"oinarri garrantzitsuenetako bat euskara"* dela gogorarazita, *"gure oinarrietako bat bizitza osoan eroaten"* segitzeko eskaera. Edo gabarra, klubaren une gozonen ikurra, hain maite eta desiratua, itzuli izana. Hori bai, Athleticeko emakumeek, duela ez hainbeste **lez**³ txapelketak irabaziz gero, gabarra ateratzeko aitzakiarik ez da izango, ezta?

i



MIREN LAZKANO

Piraguisista donostiarra lehenengo aldiz sailkatu da Joko Olinpikoetarako. Atlético San Sebastián taldeko kirolaria, hortaz, Parisen izango da udan, slalom modalitateko c-1 proban parte hartzen.

ELKAR

ze



OLATZ MITXELENA

Idazle gipuzkoarrak Espainiako Kritikaren Saria jaso du narratibaren alorrean, *Arrain hezur bat eztarrian* bildumagatik. Alor horretan, iazko euskarazko lanik onena dela iritzi dio Espainiako Literatur Kritikaren Elkarteak.

na



ASIER ALTUNA

Zinemagile gipuzkoarra Kirmen Uriberen *Elkarrekin esnatzeko ordua* nobelan oinarritu da bere hurrengo filmerako. Jone Laspiur eta Eneko Sagardoi izango dira, hurrenez hurren, Karmele Urresti eta Txomin Letamendi.

k



FERMIN MUGURUZA

Irungo musikariak bi kontzertu handi iragarri ditu datorren abendurako. Bilbao Arenako agertokian, bere ibilbide osoa, Kortatu eta Negu Gorriak taldeen garaietatik, berpiztuko du.

Amaita ZABALO



HIRU LETRATXU

Onintza Enbeita

Geurea

Beti entzun izan dugu Athletic sentimendua dela, ez dela talde soila. Eta neuk ere usain hori hartu izan dut San Mamesen egon naizen aldi gutxietan. Partida hasi aurretik **ereserkia**⁴ kantatzen den une hori magikoa iruditzen zait beti. Umeak, gazteak, zaharrak. Emakumeak, gizonak, ez emakumeak eta ez gizonak. Hamabostero zelaira joaten direnak eta egun horretan bakarrik agertu garenak. Denak zutik kantuan entzuteak ilea tente jartzen dit. Aitortzen dut. Eta ez dakit han egoten diren beste 49.999 lagunentzat, baina niretzat ereserkiak dioena ere garrantzitsua da: *“Gaztedi gorri-zuria, zelai orlegian, Euskal Herriaren erakusgarria”*. Eta uste dut gauza horientatik esaten dugula, hain zuzen ere, Athletic geurea dela. Baina momentu batez, koparen ospakizunen zurrunbilo horretan, geurea izateari utzi ziola iruditu zitzaidan. Batetik, jokalariek asmatutako ereserki **ganorabako**⁵ hori entzuten zen leku guztietan, eta, bestetik, euskararen pre-

sentzia eskasa edo ezereza izan zen ospakizun osoan.

Penagarria da Euskal Herriaren erakusgarria dela kantatzen diogun taldean hori ikustea. Ez da hain zaila adostea, euskararen zentralitatean sinetsi ez arren, hala delako itxurak egitea, behintzat. Bada, ez. Korrikaren lekukoa eraman zuten jokalariek gaztelania garbian hitz egin zuten. Formak zaintzeko ahaleginik ere ez zen egon. Jende askok dio euforiak gidatu zuela egoera. Eta horrexek ematen du minik handiena. Izan ere, halako uneetan ikusten da argien zein diren taldearen eta taldekideen balioak, inprobisatu egin behar denean, tripetatik hitz egiten denean.

Pertsonalki, mingarria egin zitzaidan hain euskara gutxi entzutea, eta momenturen batean nesken taldeari erreferentziarik ez egitea ere bai. Hori, pertsonalki. Kolektiboki, Athleticcek, klub moduan, euskarari dagokionez iparra berreskuratutako beharko lukeela pentsatzen dut.

ESANAK

“XX. mendearen hasieratik, palestinarrok munduko ordena eurozentrikoaren biktimak gara”

ATEF ABU SAIF, IDAZLEA

“Bizi garen gizarte honetan produktua garestuak nabarmena da, sistemak produktua bagina bezala tratatzen baitezake”

JASONE OSORO, IDAZLEA

“Tamalez edo zorionez, euskarak ia guztia dauka irabazteko”

GARAZI ARRULA, IDAZLEA ETA EDITOREA

“Eskubideak defendatzeko, zer gertatzen den jakin behar da; horregatik dago jendeak ez jakiteko interesa”

ROSA MARIA CALAF, KAZETARIA

“Ez nuke jakingo esaten hedabideak orain lehen baino fidagarriagoak diren ala ez, baina ez dut inoiz desinformazioaz kezkatzen horrenbeste jende entzun”

EZRA KOENIG, MUSIKARIA

1. Itsasadar: *ria (es), ria (fr).*

2. Eztanda: *explosión (es), explosion (fr).*

3. Lez: *bezala.*

4. Ereserki: *himno.*

5. Ganorabako: *fundamenturik gabeko.*

irritzia



ADINA NAGUSI IZAN, BAINA GAZTEAGO IKUSI

Berrogeita hamar urtetik gorako pertsona gehienek euren **adinkideak**¹ baino gazteago ikusten dute beren burua. Hala dio, bederen, Oklahomako Unibertsitateak (AEB) egin eta *Psychology And Ageing* aldizkariak argitaratutako azterketa batek. Berrogeita hamar urte edo gehiago zituzten 2.048 lagunen datuak azertu zituzten ikerketan. Erantzunen arabera, % 59k euren adinkideak baino gazteagoztat jotzen zuten beren burua, eta soilik % 6k uste zuten zaharragoak ziruditela. Gainerakoek, ez bata ez beste: adin bertsukoak ziruditela pentsatzen zuten. Sexuari dagokionez, emakumeen artean % 61,9 sentitzen ziren adin berekoak baino gazteago, eta gizonezkoen % 55,9. Adinarekiko pertzepzioa aztertzean, bestelako **aldagaiak**² ere **antzeaman**³ dituzte. Adibidez, heziketak eta diru sarrera maila handiek lotura dutela gazteago sentitzearekin, baita zahartzea modu baikorrean hartzearekin ere. Hori, **halaber**⁴, lotua dago osasun hobearrekin, hala burukoarekin nola fisikoarekin.



Olatz ArriagaTellería,
EHUko Itsas Bentos Ikerketa taldeko ikerlaria. Fernando GÓMEZ. EHU.

KLIMA BIZKAIKO KOSTALDEA BEROTZEAK ERAGIN SAKONA⁵ DU MAKROALGEN KOMUNITATEETAN

Azken lau hamarkadetan, itsasoaren **gainazalaren**⁶ temperatura igoerak aldaketak sortu ditu Bizkaiko kostaldeko makroalgen komunitateetan, EHUko Itsas Bentos Ikerketa taldeak eta Blanesko Ikerketa Aurreratuaren Zentroak eginiko azterlan batek **egiaztatu**⁷ duenez. Planetan gertaturiko gehiegizko berotasunaren % 90 itsasoak **xurgatu**⁸ du; ondorioz, ozeanoaren gainazalaren temperatura nabarmen igo da. Gainera,

mundu mailan hamarkada bakoitzeko 0,15 °C igo bada ere, euskal kostaldean 0,23 °C igo da. Horren eraginez, euskal kostaldeko makroalgen komunitateetan aldaketak izan dira. Hala, hainbat funtzio ekologiko jokoan daudela ohartarazi dute ikerketaren egileek. Adibidez, gehien murriztu diren espezieak, *Gelidium comeum*, esaterako, egituratzaileak dira. Hau da, organismo askoren habitat egokiak sortzen dituzte. “Espezie egituratzaileak gutxiagotu ahala, ez dugu antzeaman funtzio ekologiko garrantzitsu horiek ordezkatzeko dituen beste espezierik, eta horrek komunitateen degradazioa dakar” azaldu du Olatz Arriaga Telleria biologo eta Itsas Bentos taldeko kideak.

1. Adinkide: *de la misma edad (es), du même âge (fr).*
2. Aldagai: *variable (es), variable (fr).*
3. Antzeaman: *darse cuenta (es), se rendre compte (fr).*
4. Halaber: *asimismo (es), de même (fr).*
5. Sakon: *profundo, -a (es), profond, -e (fr).*
6. Gainazal: *superficie (es), surface (fr).*

7. Egiaztatu: *constatar (es), constater (fr).*
8. Xurgatu: *absorber (es), absorber (fr).*
9. Adostu: *consensuar (es), convenir (fr).*
10. Onura: *beneficio (es), bénéfice (fr).*
11. Eraginkor: *eficaz (es), efficace (fr).*
12. Maiztasun: *frecuencia (es), fréquence (fr).*

13. Murgildu: *zambullir(se) (es), (se) plonger dans (fr).*
14. Adiera: *significado (es), sens (fr).*
15. Hornitu: *dotar(se) (es), doter (fr).*
16. Bakarka: *individualmente (es), individuellement (fr).*
17. Sorta: *lote (es), lot (fr).*

ONGIZATEA KONTAKTU FISIKO ADOSTUA ONURAGARRIA DA

Buru osasunean nahiz osasun fisikoan, beste norbaiten kontaktu fisikoak bietan egiten digu on. Besteak beste, mina, antsietatea, depresioa eta estresa gutxitzeko balio dezake. Betiere kontaktu **adostua**⁹ denean, jakina. Herbehereetako Neurozientzia Institutuak eta Essengo Unibertsitate Ospitaleak (Alemania) egiaztatu dute kontaktu fisikoaren **onura**¹⁰, ikerketa ugari azertu ostean. Osasunean eragiten dituen mesedez gain, ondorio gehiago atera dituzte. Esate baterako, kontaktuaren iraupena ez da hain garrantzitsua, ezta kontaktua nork egiten duen eta nola ere. Hau da, lagun baten berrakada terapeuta baten masaje luzea bezain **eraginkorra**¹¹ da. **Maiztasuna**¹² omen da garrantzitsuagoa. Era berean, robot edo makinek egitea pertsonen egitea bezain eraginkorra da, osasun fisikoari dagokionez. Buru osasunean, ordea, ez hainbeste. Bestalde, jaioberriek ere ukituak izatearen onurak sumatzen dituzte, antza. Haatik, haien kasuan, nork ukitzen dituen badu garrantzia: gurasoen kontaktuak mesede handiagoa egiten die osasun langileenak baino.



IKASTOLAK IBILALDIA, "TXONBO!" EGITEKO PREST



46. Ibilaldia maiatzaren 26an egingo da, Getxon. Algortako San Nikolas Ikastolak antolatuko du Bizkaiko ikastolen aldeko festa handia, *Txonbo!* lelopean. Uribe Kostako hainbat herritan eta Txorierriko mendebaldean erabiltzen den hitza da txonbo, uretan **murgiltzea**¹³ adierazteko, batez ere buruz behera. Hitzaren **adierari**¹⁴ jarraituz, euskararen aldeko txonbo handia izango da maiatzaren 26ko hitzordua. Ohi bezala, hainbat helburu izango ditu Ibilaldiak: euskara eta euskal kultura sustatzea, ikastolen proiektua ezagutaraztea, herriko

talde eta eragileekin harremanak sendotzea... Era berean, jaiari bildutako dirua ikastolaren inbertsioak diru baliabidez **hornitzeko**¹⁵ baliatuko da. Azken urteetan egindako jai eredu aldaketaren arabera, Ibilaldiari lotutako ekintzak urte osoan izaten dira. Horrenbestez, maiatzaren 26ko hitzordua nagusia iritsi bitartean izango da bestelakorik. Horren berri zehatza ibilaldia.eus atarian ari dira ematen.

LEHIAKETA EUROPAKO EUSKAL ETXEEN PODCAST LEHIAKETA ABIAN DA

Madril eta Valentziako Euskal Etxeek Europako Euskal Etxeen II. Podcast Lehiaketa antolatu dute. Euskal diasporako euskaldunentzat eta Euskal Herritik kanpo euskal etxeetan, hizkuntz eskoletan, irakurlegoetan eta bestelako guneeetan euskara ikasten dutenentzat da. Hala, bi kategoria ditu lehiaketak: euskara ikasten ari direnena eta euskara *"normaltasun osoz"* erabiltzen dutenena. Batzuek zein besteek 5 eta 15 minutu arteko podcasta aurkeztu beharko dute, **bakarka**¹⁶ edo taldean egina, gaia haiek hautatuta. Lanak aurkezteko epea ekainaren 10ean amaituko da, eta irabazleek Etxepare Euskal Institutuak emandako euskarazko liburu eta ikus-entzunezko lanen **sorta**¹⁷ bana eskuratuko dute. Ikasleen eta euskaldunen artean euskararen erabilera bultzatzea du helburu lehiaketak. Oinarri zehatzak Valentziako Euskal Etxearen webgunean ipini dituzte: <https://euskaletxeavalencia.com/>.




MUSIKA ERRITMO AZKARRAK ETA GELDOAK DEBEKATU DITUZTE TXETXENIAN

Txetxeniako Gobernuak musikari buruzko erabaki bitxia hartu du: ez duenez nahi herritarrek erritmo motelegirik edo azkarregirik entzutea, minutuko 80-116 pultsazio dituzten piezak soilik onartuko ditu. Hala, Musa Dadayev Kultura ministroak **iragarri**¹ du musika, ahots eta koreografia lan guztiek "**zorrozki**"² errespetatu beharko dutela arau berria, Gobernuak "**kutsatzailzat**" jotzen duen Mendebaldeko eragina mugatzeko. Errepublikar errusiar honek gehiengo musulmana du, eta "**onartezina**" da, Kultura ministroen esanetan, beste herrialde batzuetako musika barneratzea: "**Herriari eta gure seme-alaben etorkizunari txetxeniaren ondare**"³ kulturala transmititu behar diegu". Txetxeniako artistek ekainaren 1era arteko epea dute irizpide berrietara egokitzeke. Bestela, Kultura Ministerioak ez die utziko beren lana jendaurrean erakusten.



Sebastian ERVI-PEXELS



OC GONZALEZ-UNSPLASH

TURIN KALEAN ERRETZEA, DEBEKATUTA

Tabakoaren kontra beste urrats bat egin dute Turinen (Italia): kalean erretzea debekatu du Udalak. Zehazki, bost metrora baino gutxiagora pertsonarik badago. Dena dela, pertsona horrek espresuki baimena eman ez gero, erre ahal izango da. Baina gertu dagoena umea edo **haurduna**⁴ baldin bada, orduan debekua **erabatekoa**⁵ izango da. Araua betetzen ez dutenek 100 euroko isuna jasoko dute. Turin ez da kalean erretzea debekatu duen Italiako lehen hiria. Milanen, esaterako, 2021ean debekatu zen, leku jakin batzuetan: autobus eta taxi geltokietan, parkeetan eta hilerrietan. Erresuma Batuan ere tabakoaren aurkako lege bat hizpide bihurtu da azken asteotan. Izan ere, 2009tik aurrera jaiotakoei bizitza osoan tabakoa erostea debekatuko dien legea jarri nahi du **indarrean**⁶ Gobernuak. Herrialdeko parlamentuan lehen pausoak eginda, onartua izateko bidean da.

KORRIKAREN AHIZPAK LA PASSEM ETA AR REDADEG, ABIAN

Hil honetan, Korrikaren bi ahizpa ibiliko dira **lasterka**⁷ Frantziako Estatuko bi lurraldetan, Korrikak bezala lekuko barruan mezu sekretu bana eramanez. Batetik, La Passem ekimena martxan da dagoeneko. Apirilaren 30ean abiatu zen Taretetik, eta maiatzaren 5ean helduko da Mont-de-Marsanera, Frantziako bost departamendu zeharkatu ondoren. Bi urterik behin antolatzen du Ligams elkarteak bai okzitaniara sustatzeko bai *lenga nosta* (gure hizkuntza) transmititzeko eta lanean ari diren proiektuetarako dirua biltzeko. Bestetik, Britainiako Ar Redadeg ekimena maiatzaren 17tik 25era ospatuko da, Pointe du Raz eta Morlaix artean, 2.222 kilometro egin eta bretoiara bultzatzeko; besteak beste, hizkuntza hori irakasten duten Diwan eskolei laguntzeko asmoz. Bietan izango da AEKren ordezkartza, Korrikaren koordinatzaile Ane Elordi Alburquerque buru.



HENDAIA ONDARRAITZ HONDARTZAN NUDISMOA EGITEKO DEBEKUA, BERTAN BEHERA

Hendaiako Ondarraitz hondartzan berriro praktikatu ahal izango da naturismoa. Ekialdeko **muturrean**⁸ zehazki, naturismoa praktikatu ahal izango da berriz, auzitegi batek Hendaiako Udalak 2021ean ezarritako debekua **baliogabetu**⁹ duelako. Hondartzaren zati horretan nudismoa egitea oso ohikoa izan da hamarkada askoan, baina 2021eko uztailearen 6an debekatu egin zuen Udalak, hondartzaren hainbat erabiltzaileen eskaerak kontuan hartuta. Inguruko Marin ospitaleko gaixo eta langileak "babesteko" asmoz ere hartu omen zuten erabakia. Debekuari **helegitea**¹⁰ aurkeztu zioten naturismoaren aldeko hiru elkartek, eta orain Paueko (Frantzia) auzitegiak arrazoia eman die. Horrenbestez, debekua **bertan behera**¹¹ geratu da eta Ondarraitzen berriz praktika daiteke naturismoa legez. Hendaiako Udalak erabakia aintzat hartu eta, gainera, dekretu bat landuko duela jakinarazi du, alde guztientzako irtenbide onuragarria topatzeko. Horretarako, elkarre naturistei ere kontsulta egingo diela adierazi du.



1. Iragarri: *anunciar (es), annoncer (fr).*

2. Zorrozki: *rigurosamente (es), rigoureusement (fr).*

3. Ondare: *patrimonio (es), patrimoine (fr).*

4. Haurdun: *embarazada (es), enceinte (fr).*

5. Erabateko: *absoluto, -a (es), absolu, -e (fr).*

6. Indarrean: *en vigor (es), en vigueur (fr).*

7. Lasterka: *korrika.*

8. Mutur: *ertz, punta.*

9. Baliogabetu: *invalidar (es), invalider (fr).*

10. Helegite: *errekurtso.*

11. Bertan behera: *anular (es), annuler (fr).*

12. Iaz: *el año pasado (es), l'an dernier (fr).*

13. Oparo: *eder.*

IKASTOLAK HERRI URRATS, INOIZ BAINO HANDIAGOA

Seaskak antolatuta, maiatzaren 12an egingo da Herri Urrats, Ipar Euskal Herriko ikastolen aldeko jai handia. Ohi den moduan, Senperen egingo da festa. Aurtengoa 41. edizioa izango du, eta helburu zehatza: Beskoitzeko ikastola eraikitzeko dirua biltzea. Izan ere, ikastola Beskoitzeko Udalaren lurretan dago, baina **iaz**¹² lur horiek erabiltzeko baimena ukatu zion,



herriurrats.eus

eta gatazka handia sortu zen Udalaren eta Seaskaren artean. Horrenbestez, ikastola berria eraikitzeko asmoa du Seaskak. Horretarako, inoiz baino jai handiagoa egin nahi dute aurtentzen. Izan ere, 2023an, eguraldi txarra zela eta, jaia mugatua izan zen. Bada, aurtentzen, bi gune berri eta eszena bat gehiago

izango ditu Herri Urratsek. Gune berriek eta zaharrek egitarau **oparoa**¹³ eskainiko dute, eta eskaintza handiagoa. Bestek beste, haurrentzako guneak indartuko dira. Emanaldiei dagokienez ere, musikari eta talde ugari izango dira: Neomak, Nogen, Delirium Tremens... Informazio zehatza herriurrats.eus atarian ikus daiteke.

KIROLA ZUZI OLINPIKOAK EUSKAL HERRIA IGAROKO DU

2024ko Olinpiar Jokoak uztailaren 26tik abuztuaren 11ra jokatu dira, Parisen (Frantzia). Hala, gutxi falta denez, atzerako kontaketa martxan da. Horren erakusle, **zuzi**¹ olinpikoa jada Pariserat bidean dela. Iragan apirilaren 16an piztu zuten, Grezian, ohiturari jarraikiz antzinako Olinpiaren **hondakinak**² dauden tokian. Herrialde heleniarrean abiatuta, 101 egunez Pariserainoko ibilbidea beteko du. Tarteetan, Euskal Herria ere igaroko du. Izan ere, 12. etapan, Ipar Euskal Herriko zenbait herritan ibiliko da. Besteak beste, maiatzaren 20an Miarritze, Angelu, Donibane Lohizune, Baiona eta Hazparne igaroko ditu, eguna Euskal Herritik kanpo, Pauen, amaitzeko. Udako hitzordua helburu, hurrengo asteetan Frantziako hainbat eskualde zeharkatuko ditu zuziak, uztailaren 26an Parisera ailegatu **aitzin**³.

1. **Zuzi:** *antorcha (es), torche (fr).*

2. **Hondakinak:** *ruinas (es), ruines (fr).*

3. **Aitzin:** *baino lehen, aurretik.*

4. **Aldiri:** *arrabal (es), banlieue (fr).*

5. **Hilzorian (egon):** *ia-ia hilda, hiltzeko zorian.*

6. **Testuinguru:** *contexto (es), contexte (fr).*

7. **Gaurkotasun:** *actualidad (es), actualité (fr).*



PIXABAY



IKUSKIZUNA 'LA HAINE' FILMA, ORAIN MUSIKAL

Hogeita hamar urte geroago, *La Haine* film gogoratua bueltan da. Oraingoan, ordea, oholtza gainean eta musikal bihurtuta. 1995ean estreinatu zuen Mathieu Kassovitz zuzendariak *La Haine*. Sekulako arrakasta lortzeaz gain, kultuzko film bilakatu zen. Parisko **aldrietako**⁴ hiru gazteren bizipenak (Vinz, Hubert eta Saïd) kontatzen ditu, poliziek auzoko gazte bat **hilzorian**⁵ uzten dutenean sortzen diren gatazken **testuin-**

guruan⁶. Polizia indarkeria, arrazismoa, gizarte bazterkeria... **gaurkotasunik**⁷ galdu ez duten gai berei eutsiko die musikalak. Jatorrizko gidoia eta elkarrizketak ere mantenduko ditu, baina zenbait eszena berrinterpretatu egingo dira, eta musika eta koreografiak gehituko zaizkie, jakina. Pantailak eta bestelako elementu eszenikoak ere baliatuko dituzte. Musikala Farid Benlaghak ekoitziko du, eta Kassovitz berak zuzenduko. Hori bai, Vinz, Hubert eta Saïd protagonisten rola ez dituzte filmeko aktoreek antzeztuko. Musikala urrian estreinatuko dute, La Seine Musicale auditoriumean, eta ondoren Frantzia ez ezik, beste hainbat herrialdetan ere eskainiko dute.

Harro Enkarterri omenaldia eskualdeko eragileei

Bizkaiko Enkarterri eskualdean euskara **sustatzen**¹ ibilitako eragile historikoak omendu zituzten, apirilaren 20an, Sodupen. Esker ona merezia zutela erakusteko, datu bat baino ez, Eustatena Enkarterriko euskaldun kopuruari dagokionez: 1981ean, populazioaren % 1,02; 2021ean, % 31,58. Gaur egun, Enkarterrin euskarak eta euskaldunek oro har pairatzen dituzten zailtasunak eta arazoak Euskal Herriko eskualde askotan **nozitzen**² dira. Halere, 1981eko egoera etsigarria kontuan izanda, eskualdeko euskaltzale batzuek zer ospatu eta zer eskertu badagoela pentsatu eta omenaldi ekitaldia antolatu zuten, herri bazkaria eta egun osoko jai giroa lagun. Omenduen artean, Lurdes Gauna Aduriz AEK-ko irakasle jubilatu berria zegoen; baita ere lehenengo ikastola eta gau eskola klandestinoen sortzaileak, geroago ikastolak eta eskoletako B eta D ereduak sustatu zituzten gurasoak, euskaltegiko irakasleak eta ikasleak, laguntzaileak... Guztiek jaso zituzten ondo merezitako txaloak.



“Paperezko bizitzak” ipuin lehiaketak baditu irabazleak

Hiru saridunak Eva Forest Libutopian.



Bi obra hauek eskuratu dute saria, *ex aequo*: Sara Aranbururen *Basa mortu*, *arrotza abortu* eta Philip Barendrechték zein Esteban Martinek elkarlanean eginiko *Ate automatikoak* ize-nekoek. Gasteizko Eva Forest Liburutopia liburu dendan jaso dute saria hiru egileek, AEK-ko Artezkaritza Kontseiluko kide Aitziber Balantzategiren eta Ane Elordi Korrika arduradun nagusiaren eskutik. Amaia Irureta, Xabier Etxaniz Rojo eta Usoa Alberdi epaimahaikideen ustez, *Basa mortu*, *arrotza abortu* oso ondo landutako ipuina da: “*Egileak hitz joko asko eta askotarikoak erabili ditu mezua helarazteko,*

*asmo poetiko eta jostari*³ nabarmenez”. *Ate automatikoak* ipuinean, berriz, “*egileak gai izan dira irudi indartsua sortu eta era egokian erabiltzeko, zuzeneko estiloa eta hitz gutxi baliatuta*”⁴. Edonola ere, bi ipuinek lortu dute helburua: “*Literaturaren bidez, paperik gabeko pertsonen arazoak (edo horietako batzuk, behinik behin) zein diren adieraztea eta halako pertsonetako enpatia agertzea*”.

1. **Sustatu:** bultzatu, zabaldu, hedatu.

2. **Nozitu:** sufritu, jasan, pairatu.

3. **Jostari:** *juguetón*, -ona (es), *joueur*, -euse (fr).

4. **Baliatu:** erabili.



JULEN AXPE
UMOREGILEA

Furgonologo izeneko lanarekin, furgoneta batean dabil hara eta hona azken urteetan Axpe (Otxandio, 1995), baita sare sozialetan esketxak zabaltzen ere. Furgoneta du bai etxe bai lantoki: 2019an, Bartzelonara joan zen bakarrizketa ikuskizun bat egitera, eta orduan hasi zen furgonetan bizitzen. Orduetik bizi izandakoak baliatzen ditu umorez kontatzeko, eta *Aupa hi!* saioa ere egin zuen ETBn. Aurretik futbolearen ibilia, DAZN plataforman Athleticen partidak euskaraz kontatzen ditu.

“Furgoneta sormen iturri handia da”

Zer da *furgonologo*?

Bakarrizketari ogibidean hasi nahi nuen. Hori lortzeko Bartzelonara furgonetaz joan nintzenean, bi mundu horiek lotu nituen: furgonetarena eta bakarrizketena. Horrela sortu nuen *furgonologo* kontzeptua. Sare sozialetan *Furgonologo* izenburuarekin esketxak egiten hasi nintzen, furgonetako bizitzak inspiratzen ninduelako komedia egitera. Ondoren, furgoneta agertoki bihurtu nuen, eta herriz herri hasi nintzen bakarrizketak egiten. Hala sare sozialetako nola kaleko emanaldien izena *Furgonologo* izan zen.

Furgoneta zure etxea eta zure lantokia da. Nola moldatzen zara horrela?

Fase ezberdinak bizi izan ditut. Bartzelonan, 4 urtez egon nintzen hiri erdian furgonetan bizitzen. Lo egiteko tokia zen furgoneta; egunez, dutxatzeko, futbol zelaira joaten nintzen; idazteko, liburutegira; komunera, tabernetara... Bizitzako erosotasun horiek ez izateak adimena bizkortu beharra eragiten zidan, eta orduan bizi izan nituen gauza askok gerora nire komedia elikatu dute. Orain,

beste fase batean nago: Otxandion bizi naiz berriro. Amaren etxean jan, aitaren etxean dutxatu, amaren etxean afaldu... eta lo furgonetan egiten dut. Lehen, furgonetan egiten nuen dena, baina orain logela da, eta herrian egonda erosotasun gehiago dauzkat.

Nola definituko zenuke zeure burua? Bidaiaria, nomada, alderraia¹...

Furgonetak askatasuna eman dit, nagusiki. Lekuetera joateko, nire showak egiteko; eta, sormen aldetik, sormen iturri handia izan da beti. Nomada edo? Ez; azken batean, nik bueltak ematen ditut, baina oso lotuta sentitzen naiz nire herriarekiko, familiarekiko, neska lagunarekiko... Horatik aurrera, batera eta bestera ibili behar badut, egingo dut, baina beti daukat nora itzuli, eta horrela sentitzen dut.

Nolako da zure umorea?

Bizia, niri pasatu zaizkidan gauzak kontatzen ditudalako, edo neure esperientzian oinarrituak. Finean, zure zer edo zer kontatzen duzunean, edo benetan sinesten duzun zerbait, bizitasun hori transmititu egiten da. Hor-taz, bizia da, eta edozein pertsonak ikusi ahal duena.

Furgonetan bizitzearen onena eta okerreana?

Onena, askatasuna. Azkenean, niretzat ez da furgoneta, nire lekua da. Orain, herrian egonda ere, aitaren etxean nire txikitako gela izan arren, furgonetan egiten dut lo, hor sentitzen naiz ongi. Espazio bat sortu dut hor barruan, etxe ibiltaria da. Txarrena, **matxurak**². Furgoneta zaharra denez, beti du zerbait.

Zenbat kilometro ditu furgonetak eta zenbat geratzen zaizkio?

515.000 kilometro ditu. Bigarren galderaren erantzuna... infinitu esango nuke. Ez dauka **iraungitze datarik**³, matxurak daukanean beti tematzen naizelako konpontzen; ez dut furgoneta aldatzeko asmorik, oraingo. Udan emaldi mordoia izango dut, beraz, espero dut sasoi hori, behintzat, ongi aguantatzea.

Futbolaria izan zinen, eta orain Athleticen partiden esataria. Esan daiteke futboletik ere bizitza ateratzen duzula.

Bai. Tira, soldatari dagokionez, inoiz ez dut bizitza futboletik atera, baina amets hori beti izan dut. Gaztetan, bakarrizketa izan aurretik, futbolaria izatea amesten nuen. Bakarrizketa naiz futbolean porrot egin nuelako.

Di-da batean

Zerk alaitzen dizu eguna?

Nire txakurrak besarkatzeak.

Eta tristatu?

Sortzeko proiekturik ez izateak.

Zerk eragiten dizu barrea?

Bakarrizketek.

Eta negarra?

Zenbait pelikula tristek.

Zerk haserreazten zaitu?

Palatan galtzeak.

Bizio bat?

Frontoia.

Plazer txiki bat?

Japoniar buffet librea.

Plazer handi bat?

Barikuetan⁵, amamaren etxeko babarrunak.

Zer izan nahi zenuen txikitari?

Futbolaria.

Eta orain, zer ez zenuke izan nahi?

Bulegaria.

Bakarrizketa bat?

Zuhaitz Gurrutxaga.

Futbolari bat?

Nico Williams.

Furgoneta modelo bat?

Volkswagen T4 California, nirea.

Autokarabanak ez zaitu tentatzen?

Noizbait oparitzen badidate, ez diot uko egingo, baina oraingo nire furgonetan jarraituko dut, eta nahiago.

Beraz, begira: batzuetan, porrotak **goraipatu**⁴ egin behar dira, eta gauzak datozen bezala onartu. Beti diot: Lehen Mailan egotea lortu dut, behintzat; esatari lanean lortu dut futbolari lortu ezin izan nuena. Oso pozik nabil, asko disfrutatzen dut. Espero gabeko pasio berri bat topatu dut. ●

1. **Alderrai**: *errante (es), errant, -e (fr)*.

2. **Matxura**: *avería (es), panne (fr)*.

3. **Iraungitze data**: *fecha de caducidad (es), date de péremption (fr)*.

4. **Goraipatu**: *alabar (es), louer (fr)*.

5. **Bariku**: *ostiral*.

Atal honetan, izenen jatorrian sakontzeko ahalegina egiten dugu, eta ateak parez pare zabalik ditugu zuen proposamenak jasotzeko. Horrenbestez, zuen izenaren jatorria edota esanahia jakin nahi badituzue, eskatzea libre!
Posta elektronikoa honetara idatzi besterik ez duzue egin behar: aizu@aek.eus.
Bilatzen eta zuen eskura jartzen saiatuko gara, ezer agintzen ez badugu ere...

Lilith

Pertsonaia bitxia dugu Lilith, aski mitikoa. Bibliak (Hasier 1, 27) hau dio: *"Jainkoak, beraz, bere antzeko egin zuen gizakia (...); ar eta eme egin zituen"*. Hortik, errabino batzuek ondorioztatu zuten Eva sortu aurretik beste emakume bat egon zela Eden. Kondairen arabera, Jainkoak Adam eta Lilith sortu zituen batera. Alta, Adamek menpeko nahi zuen emaztea, hura kexatu zen arte: *"Biok berdinak izaki, zergatik egon behar dut zure azpian sexu harremanetan?"*. Nazkatuta, Lilith **ospa egin**¹ zuen paradisutik, piztia bihurtu eta Samael deabruarekin batu zen Itsaso Gorriaren ertzean.

Geroztik, Lilith beldurra eragin izan du juduen kultura: ume txikiak hiltzen ditu eta gizonen **hazi**² alferrik galdua **xurgatzen**³ du. Mugimendu feministarentzat, ordea, lehen emakume ahaldundua da, patriarkatuaren etsai eta sexualitate askearen aldarri.

Egiaz, Mesopotamian du jatorria: Lilitu jainkosa gaiztoa ("arnas", "espiritu"). Gero, juduek hebreerazko *laila* ("gau") elearekin nahasi zuten, eta "gaueko emakume/izaki" zentzua hartu zuen.

Andre eder eta sentsuala, toki askotan agertu izan da, maiz biluzik: tarotean, pinturan (John Collier-en *Lilith*, 1887), literaturan, film, komiki, kanta eta bideo jokoetan... Pertsonen artean, baina, ez horrenbeste: Espainiako Estatuan 98 Lilith baino ez daude; 7 urte dute, batez beste.

1. **Ospa egin**: alde egin, joan.

2. **Hazi**: semen (es), sperme (fr).

3. **Xurgatu**: succionar (es), sucer (fr).

Karlos

Gizonezko izen hau aspaldikoa da, historia luzekoa.

Badu aldaeraren bat (Karlo, zein S. Aranek sorturiko Karla) eta zenbait txikigarri (Karlox, Xarles, Txarles...). Guztiek germaniera zaharra dute oinarri: *cháral*, *karlaz* edo *kerl* ("gizona", "gizon librea" edo "gizon indartsua").

Lehen Karlos ospetsua K. Martel izan zen (686-741), frankoen **buruzagia**¹; historialarien arabera, hark geldiarazi zuen musulmanen aurrerapena Europan,

Poitiersen garaitu baitzituen (k. o. 731), akitaniar eta euskaldunen laguntzaz, Paristik 294 kilometrora.

Bigarrena Karlomagno izan zen (742-814), aurrekoaren biloba. Europa erdia **azpiratuta**², Leon III. aita santuak *"Mendebaldeko enperadore"* izendatu zuen 800. urtean. Hala ere, ezagunagoa zaigu Orreagako guduagatik (778), non baskoiek beraren armada suntsitu eta Errolan zaldun mitikoa hil zuten.

Izena laster zabaldu zen Europa osoan, eta gurean ere topatu dugu adibiderik: Karlo de Liçuing (Leire, 1171) edo Garcia Carloz (Uharte, 1218), kasu; are gehiago, Nafarroako lau errege ere Karlos izan ziren 1322 eta 1461 artean.

Munduan zehar ere baditugu izenaren aztarnak; esaterako, Karolinak (Mikronesiako uhartediak Espainiako Karlos II.ari zor dio izena), edo Ipar eta Hego Karolina estatuak (AEB), Ingalaterrako, Eskoziako & Irlandako Karlos II.aren omenez (erroan, Carolus latindarra dago).

1. **Buruzagi**: agintari.

2. **Azpiratu**: mendean hartu.





“Ez gaude kupoak betetzeko, lehiatzeko baizik”

OLATZ ARRIZABALAGA (Gautezegiz Arteaga, 1997)

Portugaldik **itzuli berritan**¹ harrapatu dugu, Europako XI. Pilota Txapelketan Euskal Selektzioarekin urrezko hiru domina lortuta. Itxaso Erasunekin batera, Emakume Master Cup 2024 ere irabazi berri du.

1. Itzuli berritan: duela oso gutxi bueltatu ondoren.

Europako hiru dominek ez dute ia oihartzunik¹ izan euskal hedabideetan...

laz mundiala irabazi genuen eta berdin gertatu zen. Txapelketa hori da gaur egun Euskal Herriko selekzioarekin jokatzeko aukera bakarra. Txapelketa ofizialak Espainiako selekzioarekin jokatu behar ditugu, Euskal Herrikoa ez delako ofiziala, baina lehiaketa hau beste erakunde batek antolatzen du, eta hor onartua dago Euskal Herria selekzio moduan. Ez dugu ez dirulaguntzarik ez ezer, ilusioa egiten digulako joaten gara: euskaldunontzat zoragarria da han ikurrinaz lehiatzea.

Egiten da nahikoa Euskal Selekzioa bultzatzeko?

Beti egin ahal da gehiago. Azkenean, pilota gure kirola da, eta Euskal Selekzioa gure selekzioa; beraz, erakundeek gehiago inbertitu eta lagundu beharko lukete, eta hedabideek ere oihartzun handiagoa eman ahalko lioke. Badakigu ez dela erraza eta gauza asko daudela egiteko, baina ea hemendik urte batzuetara jendeak jakiten duen zerbait irabazi dugula. Kontua da nork egin lehen pausoa, nork hartu erabaki hori.

Emakume Master Cup lehiaketan, binakako bosgarren txapela irabazi duzu, hirugarrena jarraian.

Txapelketak daramatzen zortzi urtean, zazpi final jokatu eta bost txapel irabazi ditut. Horrek esan nahi du urte horietan guztietan lan ona egin dudala goi mailan jarraitzeko. Azken hiru urteotan, disfrutatu egiten dut binakako partidu guztietan ere, oso gustura ibiltzen naiz edozein bikotekiderek. Oso harro nago txapel honetaz, erakusten duelako nire maila hobetzen doala emakumeen pilotaren eboluzioarekin batera.

Oraindik buruz burukoa² falta zaizu. Aurten bai?

Ez dut asko obsesionatu nahi txapelketa horrekin, kolpea gogorragoa izaten delako gero. Aurtengo moduan jarraituko dut, ondo entrenatzen, beti nahi dut joko hobetu. Etortzen bada, hobeto, pisu hori gaineratik kenduko dut, urteroko komentarioa izaten delako ea noiz lortuko dudan. Baina tira, etortzen bada etorriko da, eta, bestela, hurrengo urteetan ere saiatuko naiz, finalak hor egongo direlako eta oraindik urte asko gelditzen zaizkidalako elitean lehiatzen.

Oso lehiakorra zara, alde txarra ere badu horrek?

Bai, asko kostatu zait neure buruarekin ondo **konpontzea**³. Oso kritikoa naiz, eta ez dit balio partidu bat irabazteak, beti nahi dut hobetu. Urtetik urtera hel-

"EUSKALDUNONTZAT ZORAGARRIA DA EUSKAL SELEKZIOAREKIN IKURRINAZ LEHIATZEA"

"OSO KRITIKOA NAIZ NEURE BURUAREKIN, EZ DIT BALIO PARTIDA BAT IRABAZTEAK"

"ELITEAN LEHIATZEAK DUEN GAUZARIK POLITENA DA TXIKIENTZAKO ERREFERENTEA IZATEA"

"NESKATO BATEK BERE ADINERA EGOKITUTAKO TXAPELKETAK EDUKI BEHAR DITU"

buru batzuk jartzen ditut, gauza teknikoak eta hobetzeko, baina ez direnean ondo irteten, haserretu egiten naiz. Lehiakortasun horrek kalte egiten du, presioa dago, beti nahi duzulako goian egon eta onena izan, baina **kudeatzen**⁴ ikasi behar da. Azken urteotan, horretan ari naiz. Norgehiagoka batzuetan oraindik irabazi egiten dit presioak, baina ea... apurka-apurka.

Eskarmentuarekin ere ikasiko da...

Bai, gauzak ez badituz ondo egin, beste modu batean planteatu beharko dut partida, igual ez jokaldi onenak edo politenak egiten, erraz jokatzu ere irabazten delako. Hori azken urteko ikasbidea izan da: lehen, dena polito egin nahi nuen, zaleen txaloak bilatu eta, gainera, irabazi. **Larregi**⁵ zen. Azken txapelketa honetan, eta batez ere finalean, jokoak igual ez zen ikusgarriena izan, baina bai eraginkorra, eta disfrutatu egin nuen, aurrekoetan ez bezala.

Gizonezkoak bezala, zuek ere hasi zarete alor psikologikoa lantzen?



"ZORTZI URTE DARAMATZAGU
URTERIK URTERA **FINAL GUZTIETAN**
FRONTOIAK BETETZEN"

"ORAINDIK GOIZ DA **EMAKUME**
PILOTARI PROFESIONALAK
EGOTEKO"

Ni, behintzat, bai. Buruz burukoan izan zen une kritikoren bat, presioa ondo kudeatu ezin partidaren batean, eta psikologoak asko lagundu zidan horri buelta ematen. Azken batean, txapelketa bat besterik ez da, eta txapelketa asko daude. Uste dut orduan hasi nintzela pilotaz gehiago disfrutatzen, eta oso eskertuta nago. Izan ere, kanpoko presioaz gain, geure buruari jartzen dioguna dago. Azken bi urteotan, Amaia Aldai eta biok egon gara finaletan, denbora osoan ibili gara elkarren kontra. Beti finalean egon behar hori ez da beharrezkoa, besteek ere jokatzeko dute pilotan eta irabazi ahal digute.

Dagoeneko erreferentzia izango zara entrenatzen dituzun umeentzat...

Munitibar, Aulesti eta Ispasterren ibiltzen naiz. Haietaz oso polita da entrenatzailea edo beren klubeko pilotari bat, neska zein mutil, goi mailan egotea eta telebistan ikustea. Nire finalak ikusten ere egon dira, eta klubeko neska txikiak, batik bat, oso garrantzitsua da ikustea eurak ere hel daitezkeela elitean lehiatzera eta telebistan agertzera. Elitean jokatzeko duen gauzarik politena da

txikiak erreferentzia izatea eta bidea zabaltzea. Hori ere bada presio puntua eta erantzukizuna, baina ederra.

Badago nesken harrobirik?

Bai, gero eta gehiago, baina gehiago behar dira. Kantitate handiagoa, emakumeen pilotak mutilenak bezain oinarri sendoa eduki dezan, egitura finko eta hobea. Master Cup hasi zenean, oso neska gutxi zeuden, eta azken urteetan izugarri hazi da kopurua, telebistan agertzeri eta Emakume Master Cupek, Federazioak eta klubek egindako lanari esker. Harrobia badago, baina hasi baino ez gara egin.

- 1. Oihartzun:** *repercusión (es), répercussion (fr).*
- 2. Buruz buruko:** *jokalari bat beste baten aurka.*
- 3. Konpondu:** *llevarse (es), s'entendre (fr).*
- 4. Kudeatu:** *gestionar (es), gérer (fr).*
- 5. Larregi:** *demasiado (es), trop (fr).*
- 6. Harrobi:** *cantera (es), centre de formation (fr).*

Badute non lehiatu?

Bai, lehen urteetan mutilekin ibiltzen dira, adin horretan ez dagoelako alde handirik. Gero, gorputzak **aldatu ahala**¹, banatu egiten dira. Nik txikitan jokutzen nuenean, ez zegoen txapelketarik neskentzat, eta ezin ginenean mutilekin lehiatu, pilota utzi behar izaten genuen; hori gertatu zitzaigun orain elitean gaudenoi. Orain badituzte txapelketak, beren pilota ibilbidean aurrera egin dezakete, eta gu baino hobeak izango dira. Hori gertatzeak esan nahiko du gauzak ondo egin direla.

Zer falta da oraindik?

Batetik, neska gehiago. Oraintxe bertan, elitean oso gutxi gaude eta erreleboak behar ditugu. Bestetik, egitura sendoa, neskato batek bere adinera **egokitutako**² txapelketak edukitzea urtero. Nirekin 14 urteko gazte batzuek jokutzen dute, eta nik 27 ditut, tarte handia da. Hamalau urtekoek beren adinekoekin jokatu beharko lukete, baina ez dute aukerarik, ez dagoelako neska nahikoa. Emaiezu neskei egitura on bat eta haiek egingo dute beste guztia, jokatu eta lehiatu. Azkenik, komunikabideek ikusgarritasun handiagoa ematea nesken pilotari, partida gehiago telebistan eta inbertsio handiagoa.

Zuk orain partida asko dituzu.

Bai, ez gaude kexatzeko moduan, baina larregi ere badira batzuetan. Udan, adibidez, 40 bat jokutzen ditugu, eta hori ere ez da onena. Neska gutxi gaude eta hilabete batean, agian, lau txapelketa jokatzeko tokatzen da. Federazioaren txapelketak eta Emakumeen Master Cupekoak

batzuek, esaterako, astean behin jokatzeko moduan, on egingo lioke emakumeen pilotari. Orain, txapelketak han eta hemen ditugu, eta dena jokatu gura dugu. Hala, batzuetan eskuak oso txarto izaten ditugu. Hori **ekiditeko**³ azken urtean erabaki dut txapelketa batzuk apurtxo bat aparte uztea, garrantzitsuenetan enfokatzeko, Master Cupeko binakakoan edo buruz burukoan, adibidez. Halako erabakiak hartu beharra dago; beraz, partida asko bai, baina tarteka ezetz esaten jakin behar da.

Gaur egun ikusleak ez doaz zuen partidak militantzia-gatik ikustera, ezta?

Master Cupeko lehen urtean hori gertatu zela esan daiteke. Aurrenekoa zen, izugarri zabaldu zen, Zornotzako frontoia bete egin zen... Lehen urterako, ados, **aitzakia**⁴ horrek balio dit, baina zortzi urte darmatzagu urterik urtera final guztietan frontoia betetzen. Jendea gu ikustera dator, eta telebistan ere nahiko ikusle kopuru onak lortzen ditugu, beraz, aitzakia horrek jada ez dit balio.

Frontoietan bada errezelarik oraindik gizonen alde-tik?

Hasieran, batez ere, entzuten ziren komentarioak, gure jokoa mutilenarekin konparatzen zelako. Orain gutxiago, baina txapelketa batzuetan oraindik sentitzen dugu kupoa betetzeko gaudela hor: gutxieneko interesarekin, emakume partida bat jartzen da, kupoa bete eta kito. Aitortu behar da interesa duten gero eta txapelketa gehiago daudela, baina gu ez gaude kupoak betetzeko, lehiatzeko baizik.

Noizbait pilotari profesionala izateko aukera helduko zaizula uste duzu?

Ez dakit, noizbait profesionaltasunera heltzeko pausoak ondo egiten ari gara, baina oraindik goiz da emakume pilotari profesionalak egoteko: egitura behar dugu eta, hamar pilotari egonda elitean, ezin gara denok profesionalak izan. Pixkanaka, hemendik hamar urtera, edo bostera, igual profesionalak izango gara, baina urrun ikusten dut. Orain bat-batean enpresa bat sortuko balitz diru piloa inbertituta, baliteke, baina oraindik gauza asko egin behar dituzte Federazioak eta klubek emakumeak profesional izatera ailegatzeko. ●



KOLKOTIK



1. Aldatu ahala: *a medida que cambia (es), à mesure que change (fr).*

2. Egokitu: *adaptar(se) (es), (s') adapter (fr).*

3. Ekidin: *evitar (es), éviter (fr).*

4. Aitzakia: *excusa (es), excuse (fr).*

Txikitan gustuko zenuen pilotari gizonezkoa?

Martinez de Irujo.

Eta orain?

Jokin Altuna.

Pilotaria ez bazina, zer?

Txikitan, gimnasia erritmikoan ibiltzen nintzen, jarraitu egingo nuen igual.

Zer dauka ona pilotak?

Lagunarteko giroa, lagun itzelak egin ditut.

Eta txarra?

Eskuek asko sufritzea eta neure buruari jartzen diodan presioa.

Gustuko frontoia?

Gauegiz Arteagakoa.

Bikotekide estimatuena?

Nora Mendizabal.

Arerio gogorrena?

Amaia Aldai.

Non daukazu irabazitako txapelak?

Logelako apalategian.

Pilota jokoan duzun armarik onena?

Ezkerreko eskua.

Eta eskasena?

Esplosibitate falta.

Pilota ez den beste kirol bat?

Eskalada.

Zergatik ikasi euskara?

Hain da berezia... Zoragarria da ikastea, gure identitatea delako.

Zelan moldatzen zara sukaldean?

Ondo, gustatzen zait musika apur bat jarri eta zerbait prestatzea.

Zer ateratzen zaizu primeran?

Dilistak.

Bizitzako plazer txiki bat?

Txakurrarekin jolastu edo paseatu.

Zelan ikusten duzu zeure burua 20 urte barru?

Pilota munduan, entrenatzaile; eta lanen bat edukitzea ere espero dut.

Biharko egunkarian ikusi nahiko zenukeen berria?

Pilotako Euskal Selekzioak ofizialtasuna lortu du.

Labur, nolakoa da Olatz Arrizabalaga?

Lehiakorra eta alaia.

Donostia, euskararen hiria

Donostiarren % 47 euskaldunak dira, eta % 21 ia euskaldunak, hau da, euskaraz ulertzeko gai dira. Hiru herritarretik bik euskara uler dezaketenez, Donostia hiribururik euskaldunena dela esan daiteke. Ezagutzari buruzko datuak asko hazi dira Donostian azken hamarkadetan, eta, gainera, heldu asko euskara ikasten ari dira hirian, urtean lau mila lagun inguru. Ikasle horiek Udaleko Euskara Zerbitzuak euskara ikasteko ematen dituen dirulaguntzak balia ditzakete. Ezagutza ez ezik, erabilera ere sustatu nahi du Donostiako Udalak. Ondoko lerrootan, labur-labur, ezagutza eta erabilera areagotzeko Euskara Zerbitzuaren zenbait egitasmo eta zerbitzu jaso dira.



IKASTEKO LAGUNTZAK

Euskara ikasteari arreta berezia eskaintzen dio Donostiako Udalak, hainbat modutan. Batetik, euskara ikasten ari direnei dirulaguntzak emanez: urtean 400.000 euro bideratzen ditu euskara ikasleentzat. Horri esker, ikastaroren bat egiten ari direnek ikastaroa ordaintzeko laguntza jasotzen dute. Gainera, Donostian **errolatutakoek**¹ ez ezik, Donostian lan egiten dutenek ere jaso dezakete laguntza. Bestetik, **beren-beregi**² antolatutako ikastaroak eskaintzen dizkie zenbait sektoreri: merkatari eta ostalariak, gurasoak... (60 orduko ikastaroak 60 euroren truke). Hirira iritsi berri direnentzat ere propio eskaintzen dira ikastaroak (60 ordu, 25 euro), baita doakoak ere langabeentzat eta euskara maila apaleko 16-18 urteko gazteentzat.

ERABILERA ETA MINTZAPRAKTIKA

Erabilera ere sustatzen du Udaleko Euskara Zerbitzuak. Esaterako, Mintzalaguna programa lagunduta. Euskaraz hitz egiteko ohitura duten pertsonak ohitura ez dutenekin elkartzen dira Mintzalagun saioetan, euskara ikasten ari direnek praktika dezaten. Donostian, Bagera elkarteak kudeatzen du, eta egun 300 bat lagun aritzen dira. Mintzaketek ere helburu bera du, baina aurrez aurre egon ezin daitezkeen pertsonak ordenagailu bidez jartzen ditu harremanetan. Hartara, Euskal Herrian nahiz atzerrian bizi diren euskaldunek parte har dezakete. Donostian, adibidez, 85 lagun ari dira une honetan. Egitasmo gehiago ere bideratzen ditu, hala nola Parketarrak: familiek **aisialdian**³ euskara erabil dezaten, hiriko parkeetan berariazko saioak antolatzen dituzte, haur eta gurasoak euskaraz jolasteko elkarrekin.



HITZ

gu

txi

tan

EUSKARAZ BARRA-BARRA

Euskara egunerokoan erabiltzeko beste hainbat bide ere bultzatzen ditu Euskara Zerbitzuak. Adibidez, erosketak egitean. **Eranskailu**⁴ baten bitartez, euskaraz **artatzen**⁵ duten hiriko saltokiak ezagutzeko aukera ematen du: zehazki, establezimendu horietan jendaurrean ari diren langileen erdiek, gutxienez, euskara ulertzen dutela adierazten du identifikazio horrek. Horrela, gaur egun hiriko 1.275 establezimendutan euskaraz egin daitekeela jakin dezakete erosleek. Euskaraz jarduteko ahalegina egiten duten merkatari, ostalari eta irabazi asmorik gabeko elkarteek laguntza gehiago ere jasotzen dute, besteak beste doako itzulpen, zuzenketa eta kontsulta zerbitzua. Euskaraz errotulatzeko laguntzak ere eskaini ohi ditu euskara zerbitzuak.



1. **Erroldatu:** *censar (es), recenser (fr).*
2. **Beren-beregi:** *expresamente (es), expressément (fr).*
3. **Aisialdi:** *tiempo libre (es), temps libre (fr).*
4. **Eranskailu:** *pegatina.*
5. **Artatu:** *atender (es), servir (fr).*
6. **At:** *kanpo.*



KULTURA, IKASLEEN ESKURA

Kultura ere plaza garrantzitsua da hizkuntzarentzat, eta hor ere eragiten du Donostiako Udalak. Hala, Donostia Kulturak antolatzen dituen ikastaroetan abantailak dituzte euskara ikasleek: 2024-2025 ikasturtekoetan, adibidez, % 25eko deskontua izango dute. Ikastaro horietako zenbait, gainera, *belarriprest* ereduak eskainiko dira. Hau da, euskara maila apala izan arren, irakasle zein ikasleek elkarri laguntzeko eta euskaraz aritzeko konpromisoa hartuko dute. Jakina, ikastaroetatik **at**⁶ ere euskarazko kultur eskaintza izaten da urte osoan: antzerkia, hitzaldiak, zinema... Bai Donostiako Udalak bai hiriko eragileek euskaraz antolatzen dituzten ekintzen berri modu errazean emateko, www.donostiaeuskaraz.eus webgunean euskarazko jardueren agenda paratzen dute, euskarazko planak antolatzeko lagungarria izan dadin.

mika

Medikuaren hitzordura agertzen ez denak zigorra merezi du?

Itxaron zerrendak laburtzeko, neurriak iragarri ditu Osasunbidea Nafarroako osasun zerbitzuak: zerrendan egonda hitzordu batera agertzen ez direnak edo bi hitzordu justifikaziorik gabe bertan behera uzten dituztenak zigortuko ditu, adibidez, itxaron zerrendatik kanporatuz. Frantziako Gobernuak ere antzeko neurriak iragarri ditu, bost euro ordainaraztea kasu pertsonak, 24 ordu lehenago agertuko ez dela jakinarazten ez badu. Neurriek ñabardura asko dute, osasun zerbitzuen gabeziak ere aintzat hartu behar direlako. Nolanahi ere, zer iruditzen zaizkizu halako neurriak?

AZKOITIKO AEK-KO B2 MAILAKO TALDEA

Ez zait ondo iruditzen, zigorrek edo isunek ez baitute inoiz ezertarako balio. Jendeak ikasi behar du zenbat balio duen gure osasun zerbitzuak, eta pribilegio handia dela. Medikuegana joaten garenean ez ordaintzea ez da dohainik izatea, gure zergekin finantzatzen dira, gure dirua da.

PILAR

Nire ustez, txanda hartuz gero, ezin baduzu joan abisatu behar da. Bost euroko isuna behingoagatik ez da asko, baina agian ohitura kentzeko ez dago beste erarik. Arau hori ez da pazientearentzat soilik izan behar, medikuarentzat ere bai.

MARIA (ez da azaltzen argazkian)



Nik kontraesanak ditut. Bate-tik, ondo irudituko litzaidake abisua bidaltzen badizute, egun bat lehenago ez baduzu ezer esaten zigortzea. Bestetik, ez badute abisua pasatzen, hitzordu asko ematen dituzte sei hilabete barrurako eta jende asko ez da gogoratu ere egiten. Kasu horretan ez zait ondo iruditzen.

JUANJO

Ongi iruditzen zaizkit hartu dituzten neurriak, ez da normala sei hilabete zain egotea hitzordurako, espezialisten kasuan adibidez, jende askok ez duelako abisatzen. Neurri horiekin, nire ustez, behintzat abisatzen hasiko dira.

ANE

Ondo iruditzen zait neurriak jartzea. Ez dakit zein neurri izango diren onenak hau ez gertatzeko, baina jarri behar direla bai, zeren eta itxaron zerrendak gero eta luzeagoak izaten dira. Dena dela, horiek hain luzeak izatea mediku faltagatik ere bada.

TANIA

Ez da hain fazila

Bidali zuen zalantzak, guztiok aberastuko gara eta.

AIZU! •

Ez da hain fazila

Iztueta kalea 3, behea. 20001 DONOSTIA

Posta elektronikoa: euskaratu@aek.eus

Ale honetan hainbat kontu argitzen jarraituko dugu.

(*) Asteriskodunak gaizki daude, jakina.

galde **d**ebalde?



Kaixo! Zalantza sortu zaigu eskolan eta pentsatu dugu zuek argi diezagukezuela: zein da zuzena, "Zuen erakundearentzat baliagarri izango delakoan" ala "Zuen erakunderako baliagarri izango delakoan"?

Zuen ikastaldearentzat edo ikastalderako baliagarri izango delakoan, hona hemen gure erantzuna!

Ohartuko zineten forma biak erabili ditugula goiko esaldian, ezta? Alegia, sinonimotzat hartu ditugula. Izan ere, biak daude ondo kasu horretan; zuen galderan ere, forma biak dira zuzenak: lehenengoan, "erakundearentzat" duen horretan, erakundea zerbait biziduntzat jotzen da, bizitza eta nortasuna dituen subjektutat (nolabait, pertsonak edo animaliak bezalaxe). Bigarreanean, aldiz, "erakunderako" esanda lekuari egiten zaio erreferentzia, edo zerbait bizigabeari, behintzat. Horixe da zuen duda argitzeko gakoa: erakundea biziduntzat ala bizigabetzat jotzen duzuen.

Honela dio Euskaltzaindiaren *Euskara Batuaren Eskuliburuak*: "Bizidun-zantzua duen izenak **-entzat** hartzen du (*Andonirentzat erosi dut liburu hau*); bizigabeen kasuan, **-rako** (*Trenerako erosi dut liburu hau*). Edozelan ere, sarri, testuinguruak esango digu bizidun gisa ala bizigabe gisa ulertu behar ditugun izenak; alegia, **hizkuntzarentzat, Euskaltzaindiarentzat, batzarrarentzat, elizarentzat, herriarentzat** ulertzen ditugun ala **hizkuntzarako, Euskaltzaindirako, etab. (...)** Zenbaitetan biak dira zilegi: **Ezta**riarentzat/**Ezta**rirako ona da ezta. Kirola egitea ona da **osasunerako/osasunarentzat, odolaren zirkulazioarentzat/zirkulaziorako** eta gisakoetan. Predikatuaren arabera, kasu bat edo bestea eska dezakete izenek: **Ariketa hau libururako gordeko dugu / Liburuarentzat, ona da ariketa asko izatea** (*Liburuaren mesederako da ariketa asko izatea*)".

Dena den, adi jarraipenari, kontuan hartu behar baita forma batak eta besteak beti ez diotela gauza bera:

"Beste batzuetan, gauza ezberdinak adierazten dituzte: **pianorako pieza** ('pianoz jotzeko pieza') ≠ **pianoarentzako pieza** ('tresnak behar duen pieza bat'); **hari laukoterako konposizioa** ('konposizio mota') ≠ (*halako*) **hari laukotearentzako konposizioa** ('zein laukoterentzako' adierazten du)". Bukatzeko, esan beharra dago erakundeen kasuan, zehazki, oso hedatuta dagoela subjektu bizitzat jotzea eta **-entzat** erabiltzea:

- **AEKrentzat oso garrantzitsua da Korrikaren arrakasta.**
- **Enpresa horrentzat prestaturiko ekitaldia jendetsua izan da.**
- **Eskubaloizelai ederra eraiki dute ikastola horrentzat.**

Horrelako milaka adibide topatuko duzue hor zehar!




Egia al da **edota** ez dela **edo/eta**-ren forma laburtua? Hala esan didate, eta txundituta nago!

Baita geu ere, zure moduan pentsatzen genuelako! Euskaltzaindiaren Jagonet zerbitzura jo dugu laguntza eske, eta, antza, gaizki erabili izan dugu (ia) denok (gaztelaniazko "y/o" era jator askoan ematen ari ginelakoan). Erantzun hau bidali digute: "**Edo** gaztelaniazko "o"-ren baliokidea da, baita **edota** ere. Baina **edo** eta **edota** ez dira guztiz berdinak; ezberdintasuna enfasi mailakoa da batez ere: **edota** hitza **edo**-ren indargarria da, Euskaltzaindiaren Hiztegian ageri denez".

Euskara Batuaren Eskuliburura jota, definizio hau topatu dugu: "**edota**; *junt.* **edo**-ren indargarria (*lehen adieran*), bereziki bi perpaus edo sintagmaren artean erabiltzen dena"; eta adibide hauek, besteak beste:

- **Halabeharrez, edota beti lotan egon ohi ez den deabruaren eraginez.**
- **Mesede egin nahiak edota irabazi usteak.**
- **Esan daiteke ez dakiela nora joan... edota norbaiten zain dagoela.**

Argi dago **eta**-rik ez dagoela tartean. Beraz, erdal **y/o** hori emateko, balia ezazu **edo/eta**.



2 HIZKI

JO

4 HIZKI

ADAR
ALTU
ARKU
BAXU
GONG
HODI
IHES
KORU
LIRA
MIHI
OBOE
PITA
TUBA
TUNA
TUTU
ZOTZ
ZUBI
ZURI

5 HIZKI

BANDA
BANJO
BIOLA
BOKAL
BONGO
FAGOT
GAITA
HARPA
KLABE
METAL
PIANO
PIEZA
TENOR

6 HIZKI

ALBOKA
ATABAL
BAKETA
BATUTA
BIKOTE
BIOLIN
DANBOR
FLAUTA
KANPAI
LIRIKO
MARAKA
PISTOI
TINBAL

7 HIZKI

BOSKOTE
GITARRA
LAUKOTE
NATURAL
SOPRANO
TRIKITI
TXIRULA

8 HIZKI

AKORDEOI
BARITONO
ORKESTRA
PERKUSIO
TRONPETA
TXINDATA

9 HIZKI

~~ABESBATZA~~
TARRAPATA

10 HIZKI

TXALAPARTA

11 HIZKI

BIOLONTXELO

Hiztegia erotu egin zaigu, lagunduko al diguzu hitzak dagozkien definizioekin lotzen?

- SEGA 1. Uhinak eta hartzaileen entzumena baliatzen dituen hedabide.
- GATZ 2. Bat-batean eta ustekabean gertatzen den ezbehar.
- IRRATI 3. Jaki batzuei bizitasuna emateko botatzen diegun gai zuri.
- PIPER 4. Baserritarrak belarra mozteko erabiltzen duen lanabes.
- TXORI 5. Tamaina txikia duen hegazti.
- SINADURA 6. Lege auzi batean epaia emateko ahalmena duen pertsona.
- ISTRIPU 7. Olibak barruan daukan zati gogor.
- HEZUR 8. Zuhaitzak eguzkipean lurrean sortzen duen gune ilun.
- ITZAL 9. Berdea edo gorria izan daitekeen tomatearen familiako fruitu.
- EPAILE 10. Famatuek euren zaletuei zirriborratzen dieten marrazki.



1. Letra Zopa

UME TXIKIA



FREEPIK

atsotitza O satu



Irudi bakoitzaren izena dagokion lekuan jarrita, atsotitz bat irakurriko duzu.

AKOAK, LAK, DOLA, GLA

hitz katea



Lerro batetik bestera hizki bakar bat aldatuta, lehen hitzetik seigarrenera helduko zara. Errazago iristeko, laugarren lerroko hitzaren sinonimoak dituzu.

4. Geldo, motel.


1	O	I	L	O
2				
3				
4				
5				
6	S	E	T	A

Sinonimoak ezkondu



Sinonimoak ezkondu, ea asmatzen duzun nor den alargun bakarra.

GERTU	GARAITU
BUKATU	PISUTSU
POSTURA	HURBIL
HITZ	PARADA
GERTATU	AMAITU
IRABAZI	IRITZI
ASTUN	BERBA
USTE	APUSTU
AUKERA	



Egia ala gezurra



Aldizkaria irakurri ondoren, esaguzu honako esaldiak egia ala gezurra diren.

1. Olatz Arrizabalagak binakako bost txapel irabazi ditu jarraian. e gg
2. Olatz Arrizabalagak espero du bost urte barru pilotari profesionala izatea. e gg
3. Euskal Herrian, erromatarren garaiko aztarnategi nagusia da San Juan Ante Portam Latinam. e gg
4. Historiaurrean, egun Europa den eremu geografikoan ez zen guda handirik izan. e gg
5. Arabako Arkeologia Museoak Bibat du izena. e gg
6. Orreagako Erromesen Aterpetik milioi bat lagun baino gehiago igaro dira azken 25 urtean. e gg
7. Marisol Goikoa da Orreagako Erromesen Aterpearen jabea. e gg
8. Aterpea urte osoan zabaltzen dute, neguan, Napoleon bidea itxita dagoenean, salbu. e gg
9. Udan, euskara barnetegian bakarrik ikas daiteke AEKn. e gg
10. Testigantzen arabera, barnetegia da udan ikasteko modurik onena. e gg

♈ ARIES
martxoak 21-apirilak 20

EAEko hauteskundeei buruzko iragarpenik ez nuela egin? Jakina: legebiltzar-kideen soldata bera jartzen ez didaten bitartean, ez dut politika konturik aipatuko.

♉ TAURUS
apirilak 21-maiatzak 20

Galtza motzak janzteko irrikan zaude. Nik ezin dituzut esan noiz ahal izango duzun: eguraldi iragarleei galdetu behar diezu, bestela intrusismoa bailitzateke.

♊ GEMINI
maiatzak 21-ekainak 20

Sevilla modan jarri dute Athleticcek eta futbolak. Jupiterrek eta Saturnok baloi itxura dute, eta konjuntzio betean dira. Argi dago: joan Sevillara eta ezkondu.

♋ CANCER
ekainak 21-uztailak 20

Etorkizuna iragartzeko izarrak begiratzeari utzi diot; orain, odolkien barrualdea irakurtzen dut, eta ondoren jan egiten ditut. Jada ez naiz astrologoa, *gastrologoa* baizik.

♌ LEO
uztailak 21-abuztuak 20

Erne! "Galtza bat erosiko naiz" esaten duzun bakoitzean, alkandora dotoreena tinta beltzez zikintzen zaio euskaltzain bati txipiroiak jan bitartean.

♍ VIRGO
abuztuak 21-irailak 20

Errazagoa da astrologo batek izarrei begira iragartzen dituenak gertatzea hauteskunde kanpainetan hautagaiak egindako promesak betetzea baino.

♎ LIBRA
irailak 21-urriak 20

Hil honetan, ez zaizu ezertxo ere pasatuko (beti zerbait deigarria esan beharra dagoenez, astrologo gehienek ez dute halakorik iragartzen. Ni, ordea, profesional ona naiz).

♏ SCORPIUS
urriak 21-azaroak 20

Planeta zaindu egin behar delako, klima aldaketaren aurka zaudela esan diozu bikotekideari. Alproja hori! Klima aldaketa ez, txima aldaketa aipatu dizu: moztu ilea behingoz!

♐ SAGITARIUS
azaroak 21-abenduak 20

Matematikak, beti zehatz: errazagoa da unibertsoko izarrak zenbatzea euskarafoboek egunero botatzen dituzten argelkeriak kontatzea baino.

♑ CAPRICORNIUS
abenduak 21-urtarrilak 20

Euskara zaila dela diotenei ez egin kasu zipitzik. Fermin Muguruzaren abenduko kontzertuetarako sarrerak lortzea, hori da zaila. Gainerakoak, argelkeriak!

♒ AQUARIUS
urtarrilak 21-otsailak 20

Ezetz esateko eta jendea antzarak ferratzera bidaltzeko, ausarta izan behar dela diote askok. Ausarta ez, zentzuduna izatea, besterik ez da behar. Izan zentzuduna.

♓ PISCES
otsailak 21-martxoak 20

Egun osoa Instagrami, TikToki, Xri eta antzekoei begira, guztiz kateatua. Ez izendatu sare sozial, sarde sozial baizik (sarda sozialak sortzeko).

1 logika j ¹⁺¹⁼² okoa

Lau lagun hauek zerbaitek esnatu ditu bart (goizaldeko ordu bietan, hiruretan, lauretan eta bostetan). Asmatu zer ordutan izan den, zerk iratzarri dituen eta zer egin duten.

IZENA	ORDUA	ZERGATIK	ZER EGIN

1. Gentzane irakurtzen hasi den mutila baino ordu bete geroago esnatu da. Ez bata ez bestea ez dute tximistek esnatu.
2. Koldo katuak esnatu du, ohera igo zaionean, baina ez du kamamila hartzea pentsatu.
3. Maddi eta Ander ere desorduetan iratzarri dira, goizaldeko ordu bietan eta hiruretan, hurrenez hurren.

4. Komunera joateko aprobe txatu duen neska goizaldeko lauretan esnatu da, baina ez haizeagatik.
5. Mutiletako batek, berriro lo hartu ezinik, telebista piztu du.
6. Trumoiak iratzarri duenari ez zaio kamamila gustatzen.

hamazazpi baietz!

1. Zein hitz erabiltzen da Txinako Herri Errepublikako ontzietan espazioratutako astronautak izendatzeko?

- a) Kosmonauta
- b) Taikonauta
- c) Txinauta

2. Nongo herritarrei esaten zaie *txintxarri*?

- a) Alegiakoei
- b) Lasarte-Oriakoei
- c) Tolosakoei

3. Eta nongoa da *Txintxarri* herri aldizkaria?

- a) Alegiakoa
- b) Lasarte-Oriakoa
- c) Tolosakoa

4. Nork idatzi eta irakurri zuen 23. Korrikaren mezua?

- a) Garazi Arrulak
- b) Lorea Agirrek
- c) Itxaro Bordak

5. Kirioak dantzan badituzu, zer duzu?

- a) Giharretako minez zaude
- b) Sexualki kitzikatuta edo berotuta zaude
- c) Urduri zaude

6. Noiz ospatzen da Antzerkiaren Nazioarteko Eguna?

- a) Martxoaren 27an
- b) Apirilaren 28an
- c) Maiatzaren 29an

7. Nola amaitzen da esaera zaharra? *Guztien adiskide dena...*

- a) ...gezurti alaena!
- b) ...denen artean okerrena
- c) ...ez da inorena

8. Zein da EAEko lehendakariaren egoitza ofiziala, Gasteizen dagoena?

- a) Lakua
- b) Ajuria Enea
- c) Oihaneder

9. Nafarroaren Eguna apirileko azken igandean ospatu ohi da. Non?

- a) Saran
- b) Donibane Lohizunen
- c) Baigorriin

10. Zenbat bihotz dituzte olagarroek?

- a) Bi
- b) Hiru
- c) Bost

11. Zein ibaik zeharkatzen du Lizarra herria?

- a) Argak
- b) Ebrok
- c) Egak

12. "Donostian, non itsasoak liluratu ninduen eta prezioengatik izututa geratu nintzen (...)". Nork idatzi zuen esaldi hori, 1916an?

- a) Leon Trotskyk
- b) Mata Harik
- c) Maurice Ravelek

13. Zer izen du Guatemalako diruak?

- a) Lempira
- b) Ketzal
- c) Cordoba

14. Nork itzuli du euskarara Karel Capek-en *Arrabioen gerra* (Erein, 2024)?

- a) Fernando Rey Escalerak
- b) Aiora Jakak
- c) Koro Navarro Etxeberriak

15. Zein da Eneko Abasolo bertsolari iurretarraren ezizena?

- a) *Abarkas*
- b) *Katiusko*
- c) *Zapatari*

16. Zein beste izenez da ezaguna zainzuria?

- a) Frantses-porru
- b) Lubeazun
- c) Orburu

17. Zein arrazatakoa da Satan Bihotz Txiki, *Dragoi Bola* anime eta mangako pertsonaia?

- a) Saiya
- b) Namektarra
- c) Kaioa




K. Mitch HODGE-UNSPLASH

hitz gezidunak




Amaia ZABALO

	Matraileko, mazelako		Su etena		Armiarma handia	
	Buru estalkia		Portugaleteko herritar		Aintzira	
	Detektagailu					
	Sahatsa, zumea					
	Egoskin mota	Sevillako hiria	Galdera			
	Gipuzkoako udalerrria	Zizela	Einsteinioa			
					Kanpo, landa	
					Zintzoak	
* Ezizena					Uranioa	
Karrika					Asko	
			Ubide			
			Greziakoak			
Pintura						
Fikako herritar						
				Eguzki		Toka, luke
				Kontso-nantea		
Musika nota		Erdi, hitz elkarketan			Talioa	
Putreak		Bizkor, azkar			Garraio mota	
				48 ordu barru		
				Sufrea		
Bizitza	Zaldiaren ibilera					Potasioa
	Ibarraren hasieran					Haur hizkeran, musu
				Atxondoko elizatea		
				Bokala		
Bankuen jabeak						

* Folk eta pop abeslari gipuzkoarra, benetako izenaz Maite Arroitauregi

lauki lerroa



Definizioak bete ondoren, idatzi hizki bakoitza dagokion laukitxoan eta Izaroren *Cerodenero* (2023) diskoko *Udara, udara* abestiaren lerro bat irakurriko duzu.

1	2	3	4	5	6	7	8	9		10	11
	12	13		14	15	16	17	18	19	20	21
	22	23	24	25	26	27	28		29	30	31
32	33	34	35								

1. Herri xeheari dagokiona.

14 34 25 3 30 19 28 4

2. Haitz.

1 18 24 9 21 15 6 33

3. Erabaki.

2 22 8 32 11 26

4. Hautsiz gero, sendatzeko igeltsua behar duen gorputz barruko atal.

29 10 7 13 27

5. Gorputz barruan daramagun likido gorri garrantzitsu.

5 17 20 31

6. Bostehun eta berrogeita hamar.

12 16

7. Neon gasaren ikur.

35 23

toki ezezaguna



Ba al dakizu zein den ezkerlaldeko irudian azaltzen den lekua?

Hala bada, joan aizu.eus webgunera, eta erantzun maiatzaren 20a baino lehen.

Asmatuz gero, sari baten zozketan parte hartuko duzu!

Animo, oso erraza da eta!

personaia ezkutua



- Zizur Nagusian jaio zen, 2000. urtean.
- Kirolaria da; atleta, zehazki.
- Korrika eta jauzika ibili ohi da bere modalitatean, eta azkarra da, oso.
- Bestek beste, 2022an urrezko domina eskuratu zuen Europako Atletismo Txapelketan bere modalitatean.

Dagoeneko, badakizu zein den, ezta? Bada, joan aizu.eus webgunera, eta erantzun maiatzaren 20a baino lehen. Asmatuz gero, sari baten zozketan parte hartuko duzu!

Saridunak!




toki ezezaguna: SORGINETXE DOLMENA.

Sariduna: VICTORIA LEDEZMA.

personaia ezkutua: AMALE ARZELUS.

Sariduna: MUNTERI EUSKALTEGIKO
A2 MAILAKO TALDEA.

hitz gurutzatuak



hiztegi eroa

- IRRATI.
- ISTRIPU.
- GATZ.
- SEGA.
- TXORI.
- EPAILE.
- HEZUR.
- ITZAL.
- PIPER.
- SINADURA.

hitz katea

- OILO.
- KILO.
- KITO.
- KETO.
- KETA.
- SETA.

Sinonimoak Ezkondu

GERTU-HURBIL. BUKATU-AMAITU. POSTURA-APUSTU. HITZ-BERBA. IRABAZI-GARAITU. ASTUN-PISUTSU. USTE-IRITZI. AUKERA-PARADA. GERTATU.

letra Zopa



atsotitza Osatu

AHOZABALKA, LOA EDO GALBANA.

Hezur, zartagin, botila, kulero, artaburu, barraskilo, gerezi, erloju, jaka, zubi, inurri.

logika jokoa

Maddi, 02:00, tximista, kamamila.
Ander, 03:00, haizea, irakurri.
Gentzane, 04:00, trumoia, komuna.
Koldo, katua, 05:00, telebista.

hamazazpi baietz

- b;
- a;
- b;
- a;
- c;
- a;
- c;
- b;
- c;
- b;
- c;
- a;
- b;
- c;
- a;
- b;
- b.

hitz gezidunak

			M	M	T				
			K	A	P	E	L	A	
				S	O	N	A	R	
			Z	A	R	I	K	A	
	K		U		I	T	A	U	N
G	A	Z	T	E	L	U		A	T
	M	U	R	S	E	G	O		U
K	A	L	E		K	A	N	A	L
	M	A	R	G	O	L	A	N	A
F	I	K	A	R		E	K	I	
	L	A		E	R	T		T	L
S	A	I	A	K		E	T	Z	I
		T	R	O	S	T	A		K
B	I	Z	I	A		A	X	P	E
	B	A	N	K	A	R	I	A	K

lauki lerroa

HERIOTZAK EZ DU HILDAKOA BERRIRO HILTZEN.

- Herrikoi;
- Harkaitz;
- Ebatzi;
- Hezur;
- Odol;
- DL.
- Ne.

5.000 urteko gerra, hezurretan



Guardiatik kilometro gutxira izan zen Europan ezaguna den gudarik zaharrena, ikertzaileen arabera, San Juan Ante Portam Latinam aztarnategiko hezurak berriz aztertu ondoren.

Indarkeria eta gizakia estuki lotuta egon dira historian. **Gizadiaren**¹ hastapenetatik talde txiki eta ertainen arteko biolentzia **zantzuak**² ikusi dituzte ikertzaileek. Hala ere, Europan ez dago historiaurreko guda handien aztarna askorik. Arrasto zaharrenak duela 3.250 urte ingurukoak dira, Brontze Arokoak. Hala ere, ikertzaile talde batek ondorioztatu du lehenago ere egon zirela gudak, non eta Arabako Errioxan, Neolitoan, duela 5.000 bat urte.

Haitz³ baten babespean, Guardiatik (Araba) gertu, San Juan Ante Portam Latinam aztarnategia dago. Duela 40 urte aurkitu zuten. Bada, bertan bildutako hezur eta arrastoetan oinarritu da Teresa Fernandez Crespo, Valladolideko Unibertsitateko (Espainia) ikertzailea, aipatu ondorioz hartzeko. Teknika eta ikuspuntu berriak baliatu ditu orain arte zegoen informazioa zabaltzeko, eta, tesuingurua kontuan hartuta, esandako ondorioz heldu

HARLAUZA¹¹ BATEN AZPIKO EZUSTEA

Aurkikuntza gehienak bezala, San Juan Ante Portam Latinam aztarnategia kasualitatez topatu zuten. 1985ean, Guardiatik 2,7 kilometrora, bide bat zabaltzeko lanetan hezurak eta bestelako materiala agertu ziren. Premiazko esku hartzea eginda, ehun gizabanakoren baino gehiagoren gorpuzkiak aurkitu zituzten, gezien puntak, apaingarriak... Gainera, 25 tonako harri zabal baten azpian arrasto gehiago ikus zitezkeen. 1990era arte, Arabako Foru Aldundiaren dirulaguntza heldu arte, ezin izan zuten harria kendu. Azpian, ia 300 lagun bako bako gehiagoren **ehorzket**¹² zegoen, Europan ezagutzen den gudarik zaharrenearen arrastoa izan daitekeena.

Erradio eta kubitu hezurak elkarri lotuta, gezi baten inguruan orbaindu ondoren.



Gezi punta bat, bizkarrezurrean sartuta.



Orbaindu eta orbaindu gabeko hezurren adibideak.



Bibat Arkeologia Museoko erakusketa, ikerketaren berri emateko.

da. Ikerketan, Aranzadi Zientzia Elkarteak ere parte hartu du, besteak beste, eta aztertutako hezurren erakusketa antolatu dute Bibat Arabako Arkeologia Museoon.

Arabako Errioxako inguru horretan, hainbat kultura taldetako pertsona asko elkartu ziren Neolitoan, Fernandez Crespok lortutako emaitzen arabera. Komunitate horiek bizimodu eta hileta praktika ezberdinak zituzten, eta, populazioak handitu ahala, *"tentsioa eta lehiakortasuna"* ere areagotu egin ziren haien artean. Tentsio horren ondorioz heriotzak ekarri zituen gatazka gertatu zela uste du. Gatazka ez zen une labur batean izan, hilabete edo urteetan mantendu zela arazoitu du.

HEZURRETAN IRAKURTZEN


San Juan Ante Portam Latinam aztarnategitik hartutako 338 gizabanakoren hezurak berriz aztertu dituzte iker-




Aztarnategia. Jose Ignacio VEGAS

zailearen iritziz, Europako beste aztarnategietako datu horiek bat datoz une zehatz batean gertatutako **sarraski**⁸ batekin.

Fernandez Crespok gatazka luze baten ideia beste ikuspuntu batetik defendatzen du. “Gerretan, hildakoak ez daude beti indarkeria fisikoarekin lotuta; gaixotasunek eta goseteak ekar ditzaketen bestelako gertaerak ere izaten dira”. San Juan Ante Portam Latinameko aztarnetan desnutrizioarekin bateragarriak diren arrastoak daude, **garezurretan**⁹ zein hortzetan. Lurperatutako gorpuen % 36k desnutrizioarekin lotu ahal diren aztarnak dituzte garezurretan; Iberiar Neolitikoan % 2koa zela estimatu dute. Are gehiago, desnutrizio zantzu horiek haurrengan ikusi dituzte, batez ere: umeen hezurren % 88k eta helduen % 18k dituzte.



Orbaindu gabeko kolpea duen garezurra.



Orbaindutako kolpea duen garezurra.

1. **Gizadi:** *humanidad (es), humanité (fr).*
2. **Zantzu:** *rastro (es), trace (fr).*
3. **Haitz:** *harkaitz, harri oso handi.*
4. **Hilotz:** *cadáver (es), cadavre (fr).*
5. **Halaber:** *era berean, baita ere, ere bai.*
6. **Orbaindu:** *cicatrizar(se) (es), cicatriser (fr).*
7. **Indusketa:** *excavación (es), excavation (fr).*
8. **Sarraski:** *matanza (es), tuerie (fr).*
9. **Garezur:** *cráneo (es), crâne (fr).*
10. **Berretsi:** *baieztatu, konfirmatu.*
11. **Harlauza:** *losa (es), dalle (fr).*
12. **Ehorzketa:** *entierro (es), enterrement (fr).*

keta egiteko. Emaitzetan ikusi dute gizonezko **hilotzen**⁴ kopurua ohi baino handiagoa dela, hau da, ez da garaiko gizarteko populazioaren isla. **Halaber**⁵, lurperatutako hamar hilotzetatik bik sendatutako zauriak dituzte hezurretan, eta hamar horietatik beste batek sendatu gabekoak. Zauriok ugariagoak dira gizonengan: **orbaindu**⁶ gabeko zaurien % 74 eta sendatutakoen % 70. Fernandez Cresporen ustez, datu horiek agerian uzten dute indarkeria denboran mantendu zela eta nagusiki gizonek parte hartu zutela, modu antolatuan, zauriak sendatzeko denbora izanik.

Orain arte, Europako Neolitoko aztarnategietan, Alemanian eta Austrian nagusiki, ez da halako daturik ikusi. Hilotz kopurua txikiagoa izan ohi da **indusketa**⁷ horietan, gizon eta emakumeen presentzia orekatuagoa dute, sendatutako zaurien batezbestekoa murriztagoia eta sendatu gabeko zauriak askoz ugariagoak dira. Ikert-


HIPOTESI BERRETSIA¹⁰

Duela hilabete gutxi argitaratutako ikerketak aurretik zegoen galdera bat argitzeko bidea ezarri du. Zenbait ikerlanek sarraski moduan interpretatu zuten Arabako Errioxako gertaera. Hala ere, Paco Etxeberriak eta Jose Ignacio Vegasek, azken ikerketan ere parte hartu duten Aranzadi Zientzia Elkarteko kideek, gudaren hipotesia aurkeztu zuten 1987an, aztarnategia aurkitu eta bi urtera egindako aurkezpenean. Ikerketan sakondu ahala, Vegasek hipotesi hori berretsi eta bi giza talderen arteko indarkeriazko liskar baten ondorioz gertatu zela baloratu zuen.

Fernandez Cresporen ikerketak ideia hori berretsi du. Are gehiago, horretarako jarraitutako bidea aldarrikatu du: Bibat Museoa gordetako hezurak berriz aztertu. “Ikuspuntu eta teknika berriekin, garrantzi handiko datu eta ondorio zientifikoak lor daitezke”. ●

Bi astelehenean behin ARGIA
eta plataforma guztietan

Oraingoan bertsoa
albora utzita...
beno, ez erabat :)

 [ARGIA.eus/podcast](https://argia.eus/podcast)



1. **Erromes:** peregrino, -a (es), pèlerin, -e (fr).

Erromesen zaindari

Marisol Goikoa auriztarrak 25 urte egingo ditu laster Orreagako **Erromesen** Aterpeko harrera lekuan; Milioi bat lagun baino gehiago igaro dira bertatik mende laurdenean.



Donejakue bidea modan dago. Jende piloak osatu du, eta ez dira gutxi bueltatu eta errepikatzen dutenak. Euskal Herria zeharkatzen du bide ezagunak, eta Orreagako da sarrera ate ezagunena, Nafar Pirinioetan. Han ekiten diote bideari askok; beste batzuk, Nafarroa Behereko hiriburutik, Donibane Garazitik, abiatzen dira, Napoleon bidean **giharrak**¹ majo zigortu eta Orreagara iristeko. Hortxe izan da erromesen zain azken 25 urteotan Marisol Goikoa auriztarra, **aterpeko**² harrera lekuaren arduraduna.

45 urteko emakumea erromes kopuru benetan potoloa artatu duelako egin da ezaguna: milioi bat pertsona igaro dira bertatik azken mende laurdenean. *“Ez ditut zenbatzen. Norbaitek esan zidan dagoeneko milioi bat baino gehiago zirela, eta nik ezetz, ez zela posible. Apustua egin genuen, afaritxo bat, eta galdu egin nuen. **Kitatu ditut zorrrak**!”* Orreagako aterpeak erromes gehien hartu dituen urtean 68.000 lagunek hartu zuten ostatu bertan. Atzerri-tarrak dira asko, eta horien artean korearrak nagusi azken urteetan.

Kasualitatez hasi zen lanean Orreagan: *“Hilabeteko **ordezkapen**⁴ bat egiteko etorri nintzen, eta hemen nago oraindik”*. Aterpean, 245 lagunentzako tokia dute. Erre-serbak Internetez egin behar dira eta Goikoak kudeatzen ditu denak. Baita gosari eta **otorduak**⁵ ere. Merke antzean: 14 euro gaua, 13 otordua eta 6 gosaria.

Milioi bat lagun artatu ostean, eskarmentu handia pilatu du bere lanean. *“Atetik sartzan denerako, badakit erromesa nolakoa den: umila eta **adeitsua**⁶, edo harroa, dena eskatu eta gutxi ematen duena... Intuizio handia ematen dizu hemen orduak pasatzeak”* dio **zintzoki**⁷.

MEZA ETA SAKELAKOAK

Orreagako aterpean, erromesaren meza izaten da egunero iluntzeko zortzietan. Iraganean, erromesek **elizkizuna**¹¹ zein ordutan zen galdetzen zuten harrera lekuan, baina egun ez omen dute gehiegi galdetzen. Kritikoa da Goikoa egoera horrekin: *“Apai-zak arduratuta daude, gero eta jende gutxiago joaten delako mezatara. Orain, erromesak aterpeko atariko aulkietan eseri eta nor bere sakelakoarekin bakarrikzitan aritzen dira. Meza sakelakoekin ordezkatu dute”*. Goikoak dio meza sinesmen edo debozioaren gainetik dagoen zerbait dela, *“nork bere bakardadean bere barrua bilatzeko ariketa bat. Ni gustura joaten naiz tar-teka, eta pena ematen dit meza jendez eskas egoteak”*.

Milioi bat pertsonaren artean denetik igaro baita Orreagatik. Ordainketa borondatezkoa zen iraganean aterpean. Goikoa lanean hasi zenean ere bai: *“Horrek arazo bat dakar: borondatezkoa entzun eta doan dela uste dute zenbaitek. Baina ez da horrela. Hemen, gastu finko asko daude: argia, garbiketa, elikagaiak...”*. Borondatezko zerbitzua ordainpekoa bihurtzeko prozesua ez omen da **samurra**⁸ izan, *“oraindik badagoelako aterpea eta jana dohainik direla uste duenik. Nik zera esaten diet: 245 ohe ditugu, eta denak beteta baditugu, ezin dizut oherik eskaini”*. Berandu iritsi eta oherik gabe geratzen direnek badute Orreagako hotelera joateko aukera, edo Aurizko ostatu batera, baina horrek dirua balio du, *“eta Donejakue bideak badu merkea delako edo izan behar duelako fama hori”*.



Marisol Goikoa auriztarra, aterpeko harrera lekuaren arduraduna.

Aterpea beti dago irekita. “Urte osoan egoten gara hemen, jaiegunetan barne”. Goikoak negua du urtarorik gustukoena: “Harremana erromesekin hurbilagoa da”. laz, eguenero hartu zuten erromesen bat aterpean. Jende gehien apiriletik urrira bitartean biltzen da. Joan den hilean ireki zuten Napoleon bidea, ezagunena, Garazitik datorrena eta neguan eguraldi txarragatik ixten dena. “Garazin, Iruñeko entzierroan zezenak nola, hala zegoen jendea, ero-ero bidea ireki zain” dio barrez.

OHITURA ALDAKETA ITZELA

25 urtean aldaketa itzela ezagutu dute Orreagan. “Duela bi hamarkada, osagai espiritualak askoz indartsuagoa zen, fededunak etortzen ziren nagusiki. Orain, aldiz, Donejakue bidea moda bilakatu da. Norbaitek bidea egin duela jakin eta beste batek hiru aldiz egiten du, hiru aldiz egin duela esateko”. Horietako batzuekin, bidea bukatu ondoren ere, harremanetan jarraitzen du Goikoak.

Azken urteotan, gaztelaniazko *turigrino* hitza ezagun egin da Donejakue bidean. Alegia, erromesak turista soil bilakatu direla dioen teoria. Bat dator Goikoa, eta adibide bat jarri du: “Koreako talde bat etorri zen ez aspaldi, furgonetan. 20-25 bat, sekulako maletzarrekin. Hemen **harbi-dea**⁹ dagoenez, maleten gorpilen soinua beldurtzeko modukoa da. Bada, ile lehorgailuarekin, arropa dotoreekin... etorri ziren, eta ez zutela halakorik behar esan nien, hemen arropa zaharra dela egokiena”.

Horrelako erromesekin Donejakue bidea bere esentzia galtzen ari dela dio Goikoak. “Bizitza aldatu egiten da, bi-

dea ere bai. Urte batzuk atzera, wifiaren aurkakoa nintzen, maletak eramateko zerbitzuaren aurkakoa... Baina egokitu beste erremediorik ez duzu. Wifa badago, dena ondo. Ez badago, alde egiten dute” azaldu digu.

Ezin jakin hamarkada bat edo bi barru Donejakue bidean, Orreagako aterpean, wifiak zein garrantzi izango duen. Ziurra da, ordea, Goikoak udako gauez gozatzen segituko duela: “Lana bukatuta, atarira atera, zigarro bat erre eta gaueko isiltasunean murgiltzea dut gustuko. Erromesen baten **zurrunka**¹⁰ entzun, eta pozik joaten naiz etxera”. ●

1. **Gihar:** muskulu.
2. **Aterpe:** *albergue* (es), *auberge* (fr).
3. **Zorrak kitatu:** *saldar deudas* (es), *régler les dettes* (fr).
4. **Ordezkapen:** *sustitución* (es), *remplacement* (fr).
5. **Otordu:** *gosari*, *bazkari*, *askari* edo *afari*.
6. **Adeitsu:** *amable* (es), *aimable* (fr).
7. **Zintzoki:** *sinceramente* (es), *sincèrement* (fr).
8. **Samur:** *erraz*, *zailtasunik ez duena*.
9. **Harbide:** *harrizko bide*, *galtzada*.
10. **Zurrunka:** *ronquido* (es), *ronflement* (fr).
11. **Elizkizun:** *acto religioso* (es), *cérémonie religieuse* (fr).



Andrea Bartolo

Messina, Sizilia, 1987

2011n etorri zen Bilbora eta iritsi bezain pronto hasi zen euskara ikasten, “*atxikimendu emozional eta politikoagatik*”. Erroman Zientzia Politikoak ikasia, Euskal Herriko hainbat herri mugimendutan dabil. Aurtengo ikasturtean, AEKn hasi da irakasle, Enkarterrin: “*Oso esperientzia motibagarria da*”.

Atalaren protagonista guztien testigantzak:
<https://www.aek.eus/eu/bloga/zelan-euskaraz>

“Euskal Herrian euskara ikastea beti da soziala, erlazionala”

Zergatik erabaki zenuen euskara ikastea?

Siziliakoa naiz, kolonialismoak hizkuntza, kultura, tradizioak... suntsitu dituen herri zapaldukoa. Beraz, hortik datorkit atxikimendu emozionala, badakidalako gerra kulturala pairatzea zer den. Horrez gain, Euskal Herriko historia eta borroka miresten ditudalako. Borrokaren bitartez bere historia, kultura eta hizkuntza bizirik irautea lortu duen herri zapaldua da Euskal Herria.

Nolako prozesua izan duzu?

Luzea, baina polita. Hasieran, gorabeheratsua, baina beti polita eta aberasgarria. Uribarriko gau eskolan hasi nintzen. Ondoren, AEKn ikasi nuen, Lizardin. AEKren lana sekulakoa da. Ez dizute soilik hizkuntza transmititzen, ikuspegi orokorragoa baizik: kultura, mundu ikuskera... Oso garrantzitsua da. Ikasketa prozesua, batez ere Euskal Herrian, ikastaroak egitea baino gehiago da. Nik nire kabuz ikasi nuen, baina baita kalean ere. Betidanik izan dut ingurune euskalduna, eta horrek pilo bat lagundu dit. Euskara ikasteak inplikazio gehiago ditu, euskara jakiteak ate ugari irekitzen dizkizulako euskal komunitatearen parte izateko: eremu euskaldunak, herri mugimendua...

Zer izan da errazena zuretzat?

Euskara ikastea benetan errazten dizuna euskaldunon giroa da; maila sozialean, ikasten ari denarekiko jarre-


ra. Ingurune sozialaren zeregina ikasketa prozesuan oso oso garrantzitsua da. Euskal Herrian, nabaria da. Oro har, euskaldunek pila bat eskertzen dute atzerritarrek euskara ikastea. Jarrera ona izan ohi dute, laguntza eskaintzen dute... Esan genezake Euskal Herrian euskara ikastea inoiz ez dela prozesu indibiduala, baizik eta soziala, erlazionala.

Erabiltzen al duzu?

Egunero. Oro har euskaraz bizi naiz: lanean, bikoitekidearekin, lagunekin... Bilbon ezin dela euskaraz bizi esaten da sarritan, baina ez da egia. Igual beste eremu batzuetan baino zailagoa da, baina bizi euskaraz bizi daiteke.

Trikimailuren bat?

Jarrera kontua da, apur bat. Euskara ikasteko eta euskaraz bizitzeko, garrantzitsua da lotsa galtzea eta jendearekin hitz egitea, euskaraz aritzea... Azken finean, akatsak egiteko beldurrik ez izatea. Umetan, eroriz ikasten dugu oinez. Bada, euskararekin jarrera bera izan behar dugu. Eta ingurune soziala aprobetxatu. Euskaldunek herri kontzientzia dute, laguntzeko prest daude beti. Inork ez zaitu epaituko euskara txarto erabiltzen dizulako; euskara ez erabiltzea baloratzen da txarto hermen. Beraz, gogoratu euskara txar bakarra erabiltzen ez dena dela. ●



“Arrainak ura, eta euskarak ekosistema osoa” irakurri zigun Garazi Arrulak 24. Korrikaren mezuan. Euskara ikaslearen ekosistema urritik ekainera bitarteko euskaltegira mugatzen da askotan; batzuk barnetegira ere joaten dira ikasturtean **zehar**¹, baina ez da erraza aukera hori edukitzea: lana, familia... Uda partean, aldiz, eta oporrak medio, ikasle gehiago animatzen dira. Haatik, udan etxean jarraitu nahi (edo behar) duen euskara ikasleak badu, AEKren zenbait euskaltegitan, euskara ikasten jarraitzeko **parada**². Batera edo bestera, guztiak sartuko dira euskararen ekosisteman, euskaraz harro aritzeko.

1. **Zehar:** *durante (es), durant (fr).*

2. **Parada:** *oportunidad (es), opportunité (fr).*

Udan ere harro euskaraz

1. **Etixeratu:** *etxera joan.*
2. **Ikuskizun:** *espectáculo (es), spectacle (fr).*
3. **Bateragarri:** *compatible (es), compatible (fr).*
4. **Trinko:** *intensivo, -a (es), intensif, -ive (fr).*
5. **Isolatu:** *aislar (es), (s')isolat (fr).*
6. **Axolagabe:** *despreocupado, -a (es), insouciant (fr).*



Gorka Gutiérrez Miguel

“Semearekin joan nintzen, euskaraz hitz egiteko”

"Iaz, Adunako familia barnetegira joan ginen Enaitz eta biok, gure artean gaztelaniaz mintzatzeko ohitura aldatzeko. Zortzi bat familia egon ginen, oso gustura. Enaitzi eskolan kostatu egiten zaio euskara, eta pentsatu nuen momentu ona izango zela biontzat, ni B1 mailan eta bera LHko azken urtean egonik. Hasieran, zaila egin zitzaion euskaraz hitz egitea, baina gero poliki-poliki hasi zen. **Etixeratutakoan**¹, ez zuen jarraitu nahi, baina nik euskaraz hitz egiten banion, konturatu gabe erantzuten zidan euskaraz. Oraindik ere kostatzen zaigu, ez dugu egunero hitz egiten, baina batzuetan bai. Ez da erraza, euskara eskolarekin lotzen duelako eta etxeko hizkuntza gaztelania delako. Nik animatzen dut esanez gauza bat dela eskola eta beste bat kanpoan hitz egitea. Joan den martxoan, barnetegiko lauzpabost familia asteburua elkarrekin pasatzeko elkartu ginen, Zugarramurdin eta Baionan Korrikaren azken egunean. Enaitz lasaiago egon zen, ondo moldatu zen eta euskaraz hitz egin zuen".

Isabel Garde Etxeberria

“Badago barnetegia baino modu hoberik?”

"Iazko udan, hamabost egun egin nituen Foruko barnetegian. Zein ondo pasatu genuen! Esnatzen zarenetik oheratu arte euskaraz hitz egiten. Badago hizkuntzak ikasteko modu hoberik? Modu desberdinetan ikasten genuen: ikasgelan, mendian, tabernaz taberna, herriak ezagutuz, **ikuskizun**² batera joanez... Jokoak ere antolatzen zizkiguten, eta herriko jendearekin hitz egiten genuen. Haien hizkuntza eta gurea desberdina eta berdina zen aldi berean! Barnetegian, ezer ez dakizula uste duzunean, pentsatu gabe hasten zara euskaraz hitz egiten. Horrela da, benetan! Eta inportanteena da beldurrik gabe hitz egiten duzula. Aurten ere joango naiz, noski. Funtsezkoa da baikorrak izatea eta guztion artean ondo moldatzea".



Iñigo Ramirez de la Piscina De la Parte

Estibaliz Arranz Sevillano

“Garrantzitsua da udan ez gelditzea”

"Iaz B2 maila egin eta udan barnetegira joan ostean, irailan Derioko AEKn egin nuen idazlan proba prestatzeko ikastaroa. Lan egin behar nuen, eta ikastaroaren ordu-tegia eta nire lanekoa **bateragarriak**³ ziren. Nire ustez, euskara edo beste edozein hizkuntza ikasteko prozesuan garrantzitsua da udan ez gelditzea. Horretarako, barnetegia da onena, eta beste urte batzuetan joan izan naiz; halere, azterketak prestatzeko ikastaro **trinkoak**⁴ ere lagungarriak dira: oso zehatzak dira eta arreta horretan jarrarazten dizute, azterketak prestatzen laguntzen dizute eta alderdi ahulenak indartzeko oso baliagarriak dira. Badakit pertsona askorentzat ahalegin handia dela, baina ikasteko erritmoa biderkatu egiten da eta askoz ere urte gutxiagoan ikas dezakezu hizkuntza. Barnetegira joan eta ikastaro trinkoak eginez gero, euskara ikasteko prozesua ez da hainbeste luzatzen: askoz lehenago bizi zaitezke euskaraz, eta denbora gutxiagoan lor ditzakezu euskara tituluak eta lanpostu kualifikatuak".

“Naturalago eta axolagabeago hitz egiten da barnetegian”

"Ia 20 urte daramatzat irakasle Bilboko AEKn, eta iaz Arantzako barnetegian izan nintzen: paradisua da, **isolatuta**⁵ dago eta herritarrak oso jatorrak dira. Euskaltegiarekin alderatuta, abantaila nagusia 24 orduko segida da, euskaraz etenik gabe mintzatzea, egunero. Euskaltegian, ikastaro trinkoa egin arren, ikasleak ordu batzuk egiten ditu euskaraz, baina irtendakoan berriro jotzen du erdarara. Barnetegian, aldiz, ez dago horretarako tarterik, eta bi astez erdara kanpoan uzteak asko egiten du. Euskaltegian ibilita, hizkuntzaren txipa bi aldiz aldatzen da egunero, sartzean eta irteteen; barnetegian, hasieran bakarrik gertatzen da, eta ikasleei nabaritzen zaie aurrerapena. Ez dut esango bat-batean askoz hobeto hitz egingo dutenik, baina bai naturalago eta **axolagabeago**⁶; horretan dago balioa. Gerora, ikasle batzuekin topo egin, eta barnetegia amaitutakoan erdaraz aritzea arraroa egiten zitzaizela kontatu zidaten, eta aurretik zituzten harreman batzuetan ohiturak aldatzeko eta euskaraz hasteko aprobetxatu zutela. Ez zuten barnetegian bezainbeste hitz egiten euskaraz, baina bai Arantzara joan aurretik baino askoz gehiago". ●

ilustratu



FOKU

Lizar Begoña bere lehen nobela argitaratu du

Mundu zitalaren kontra (Elkar) eleberria kaleratu du Lizar Begoña idazle bizkaitarrak. Bere proiektuak Igartzta saria irabazi zuen 2022an, eta dagoeneko plazaratu da, argitaletxearen esanetan, “*begirada eta estilo propioak*” erakusten dituen lana. Benidormeko kiosko batean lan egiten duten bi emakume ditu protagonista. Garai batean egunkariz eta bezeroz betetako tokia ahanzturaren eta dekadentziaren **ikur**¹ bihurtu da, eta bertan betetzen dituzte goiz eta arratsaldeko txandak Pilarrek eta neska gazte batek. **Aurrena**² XX. mendearen erdialdera kioskoa ireki zuen arrantzalearen alaba da, ahizpa zahar ezinduarekin bizi dena; bestea, izenik gabeko neska bizkaitarra, udako lantxo baten bila joana. Bi bakardade paraleloren kontaketa bidez, egungo gizartearen erretratu zorrotza egin du egileak.



Irakurtzeko

EZ NAIZ ONDO AKORDATZEN

Karlos Linazasoro Izagirre
Elkar, 2024



Hagiografia santu baten bitzita kontatzen duen idazkia da; bada, idazleak berak dioenez, liburu hau bere santu bitzitarren azalpen **xehea**⁴ da, betiere oroime-nak uzten dion neurrian. Irakurleak mirari harrigarriak, hitzaldi txundigarriak, ekintza **dohatsuak**⁵... aurkituko ditu bertan, baita adarjotze bikainak, megalomania **gaitzak**⁶, hipokondria galantak, erudizio alferrikakoa, ironiaren ukitu etengabea... ere.



IXABEL ETXEBERRIA ikertzaileak *Margarita Nafarroako Erregina* (1492-1549) biografia kaleratu du Euskaltzaindiarekin. Margarita Frantziakoa Valois **leinuko**³ kidea zen, baina, Henrike II. arekin ezkontuta, toki berezia hartu zuen Nafarroako historian. Emakume argia, ez zen soilik politikan aritu: literaturarekiko zuen grina bereziari esker, obra nabarmena utzi zuen, XVI. mendeko literatur sortzaile erreferente bihurtzeraino, eta antzerkia erabili zuen bere ideiak ezagutarazteko.

1. **Ikur:** *sinbolo.*
2. **Aurrena:** *lehenbizikoa, lehenengoa.*
3. **Leinu:** *linaje (es), lignage (fr).*
4. **Xehe:** *detallado, -a (es), détaillé(e) (fr).*
5. **Dohatsu:** *zorioneko, zoriontsu.*
6. **Gaitz:** *gaixotasun, eritasun.*
7. **Kokatu:** *situar(se) (es), (se) situer (fr).*
8. **Gainerako:** *el resto (es), reste (fr).*

Udalbiltzako Geuretik Sortuak proiektuaren bilduma honetan bost komikilariren lan bana jaso da, bakoitza Euskal Herriko leku eta garai batean **kokatu**⁷: *Harresia* (Unai Gaztelumendi), *Gure basoak* (Eñaut Aiertzaguena), *Txillardegia Bergaran* (Kote Camacho Koteto), *Handantza* (Iñaki Martiarena Mattin) eta *Aldaxka pozoituak* (Aritz Ibarra). Asmoa, geurea geuk kontatzea, geuretik sortu eta irudikatze.

HONA BOSTEKOA!

Bost komikilariren artean
Geuretik Sortuak, 2023

Idazlea
kontu kontari



UNAI ELORRIAGA

“Ez dut bestondorik izan XIX. mendetik hona”

Idazle bat?

Valeria Luiselli.

Opari egiteko liburu bat?

Wehrmacherako karpak, Ota Pavelena.

Irakurtzeko lekurik onena?

Isiltasuna.

Zer gosaltzen duzu?

Kiwia, zerealak, esnea eta gailetaren bat.

Bestondoari aurre egiteko erremediorik onena?

Ez dut bestondorik izan XIX. mendetik hona; erremedioak ere, ahaztuta.

Zein esaldi edo esakune errepikatzen duzu askotan?

“Noren kontra berdindu du horrek?”.

Zertan ez zaizu inporta gehiegitxo gastatzea?

Kirolean.

Norekin joango zinateke trago batzuk hartzera?

Resurrección María Azkuerekin.

Pertsonaia historiko bat?

Antoni Gaudí.

Zer dago traban zure etxean?

Ni neu, gehienetan.

Joateko asmoa daukazu leku bat?

Urretxu.

Zure lehen mito erotikoa?

Eurovisioneko koruko kantarietako bat.

Zure bertuterik onena?

Pazientzia.

Zure akatsik handiena?

Gainerako⁸ guztiak.

Besteengan errazen barkatzen duzuna?

Puntualitaterik eza.

Eduki nahiko zenukeen eta ez daukazu dohaina?

Jenialtasuna.

Badakizu aureskua dantzatzen?

Ez, baina badakit ikusten.

Lurpera, erraustu ala zure gorpua zientzia ikerketarako?

Axular ez naizen aldetik, gero horrek ez nau gehiegi arduratzen.

aek

Elez 24

meatzaldeko
izkribu lehiaketa

oinarriak eta info gehiago webgunean
lana bidaltzeko epea: | sari banaketa:
maiatzaren 14a | ekainaren 5a

laia

ERRETEGIA

www.laiaerretegia.com

belarrion



Hibai AGORRIA


Ibon RG-k 'laquin vahu' albuma kaleratu du

Musikari bizkaitarrak Bernat Etxepareren **olerkiak**¹ abesti bihurtu eta Repetidor zigilu kolektiboarekin kaleratu ditu. Ez dira edozein olerki, euskaraz inprimatutako lehenengoak baizik, *Linguae Vasconum Primitiae* liburuoak (1545). Eta ez dira olerki guztiak, Itxaro Borda idazleak bakoitzetik hautatutako bertso lerroak ere badaudelako. Lana osatzeko, René Lafonek eta Patxi Altunak bere garaian frantsesera eta gaztelaniara egindako itzulpenak (eguneratuta) biltzen dituen liburua erabili du. Hamasei pieza dira guztira, batzuk *a capella* eta beste batzuk pianoaz lagunduta abestuak. Batzuk, bakarka; beste batzuk, kolaboratzaileen laguntzaz, hala nola Enrique Hurtado, Garazi Navas, Miguel A. García, Verde Prato, Maite Arroitauregi *Mursego*, Matías Riquelme, Fernando Ulzión, SusanaRG, Ane Arana edo Paraluxekin.

Entzut lekol

INBASIOAK

Ekhi Lambert
Forbidden Colours, 2024



Lamberten bakarkako bigarren diskoa izan behar zuena lan kolektiboa bihurtu da, hainbat musikarirekin osatu baitu: Oiasso Kamerata **hari**² orkestrako musikariak, Joseba Irazoki, Félix Buff, Oihan Oliarj-Ines, Ludovic Leriche, Vincent Mougel... Kantuari eta poesiari lehentasuna eta musikariei askatasun handia emanda, giro dotore eta epikoa **ehundu**³ du, orkestra musikak eza-rritako ildoetatik harago.



BAKARKA BI

Ruper Ordorika
Elkar, 2024



GIZA ZARATA (*Tristuraren industria*, 2024) lana kaleratu du Anari idazle eta musikari azkoitiarrak, berak konposatu eta idatzitako hamar abestiren bilduma. Berarenak dira moldaketa eta ekoizpena ere, Joaquín Pascualekin eginak (gitarrekin, pianoarekin eta teklatuekin ere lagundu dio). Bere ibilbideko zazpigarren lan luze honetan, gainera, Paco Loco (elektro-trasteak), Xabier Olazabal *Drake* (baxuak) eta Mikel Txopeitia (bateria eta perkusioa) izan ditu bidelagun.

1. **Olerki:** poema.

2. **Hari:** cuerda (es), corde (fr).

3. **Ehundu:** osatu, egituratu, eratu.

4. **Funts:** esentzia.

Oñatiarraren disko berria 2018an argitaratutako *Bakarka* proiektuaren jarraipena da, Ruperren errepertorioaren zati bat era intimo eta minimalistan, bakarka, berreskuratze aukera. Musikariaren diskografiako dozena bat abesti biltzen ditu, "artifiziorik gabeko" formatuan, "kantua **funtsa**⁴" ezagutarazteko. Aurrekoan bezala, grabazioa, nahasketak eta masterizazioa Azkarateko Mamia estudioan egin dira.

Disko gogokoenak



GOTZON HERMOSILLA



AMETSAREN BIDEA

Errobi
Xoxoa, 1979

Euskal rockaren aitzindariak

Errobi taldea bueltan da, bere 50. urteurrena ospatzeko Bilbon emango duen kontzertu bereziaren bidez. Hala, euskal rockaren **aitzindaria**¹ izandako talde honen diskografia berreskuratzeo aukera dugu. Folk rockera lerratuago zeuden bi disko (1975eko *Errobi* eta 1977ko *Gure lekukotasuna*) eta zuzeneko lan bat argitaratu ondoren, *Ametsaren bidea* plazaratu zuten, askok taldearen gailurtzat jotzen duten diskoa; 70eko hamarkadan **boladan**² zeuden rock progresibo (diskoari izena ematen dion kantu luzea) eta jazz rock (*Andere*, batez ere amaiera aldera Mixel Ducauk saxoarekin egiten duen lan miresgarria) korranteetan sartuta dago bete-betean. Euskal rockaren historiari **mugarria**³, dudarik gabe.

1. **Aitzindari:** precursor, -a (es), précurseur (fr).
2. **Boladan:** modan.
3. **Mugarri:** une oso garrantzitsu.



Musikaria mintzo

ENERITZ FURIK

Musikari bat? Maddi Oihenart.

Opari egiteko disko bat? Anna Homler eta Steve Moshier-en *Breadwoman & Other Tales*.

Musika entzuteko lekurik onena? Etxea, kaskoekin.

Zer gosaltzen duzu? Kafesnea ogiarekin; eta, batzuetan, tortilla frantsesa.

Zer galtzen zaizu beti? Autoko giltza.

Zein esaldi errepikatzen duzu askotan?

"Zer demontre?!".

Zertan ez zaizu inporta gehiegitxo gastatzea?

Soinuarekin zerikusia duten **tramankuluetan**¹ eta bigarren eskuko arropan.

Zure lehen mito erotikoa? Sorgin Aspertua.

Pertsonaia historiko bat? Eliane Radigue.

Bestondoari aurre egiteko erremediorik onena?

Ez edatea.

Zure bertuterik handiena? Tema².

Eta lagunengan gehien estimatzen duzuna?

Beren buruarekiko fidelak izatea.

Zer eramango zenuke uharte huts batera?

Grabagailua eta katua (eta Jakoba Errekondoren baratzerako gida).

1. **Tramankulu:** armatoste (es), instrument (fr).

2. **Tema:** obstinación (es), obstination (fr).



euskaratu

itzulpengintza
zuzenketa zerbitzua **aek**

Itzulpen idatziak
(gaztelania-euskara/euskara-gaztelania) eta
euskarazko testuen zuzenketa.

Informazioa-kontratazioa:
946 464 000 / 663 194 343
euskaratu@aek.eus




KALE NAGUSIA, 14
20003 DONOSTIA
943 424 797

ITSAS ESTILOA

enbatadenda@gmail.com
www.enbata.eus

ENBATA





'Lurrez estali', laborarien errealitateari soa

Axut! antzerki taldeak *Lurrez estali* antzezlan aurkeztuko du, maiatzaren 31n, Izurako (Nafarroa Beherea) Latsaga **Zalditokian**¹, eta hiru astez eskainiko du bertan, ez beste inon. Hain justu, hantxe egin dituzte idazketa eta sorkuntza egonaldia. **Laborarien**² bizipenak eta kontakizunak jaso ditu lanak, baserri baten **jiran**³ bildutako pertsonaien bitartez: zorretan den baserriko semea, laboraria; haren aita, **zaharminak**⁴ jota bizi dena; baserria gustuko ez duen senidea; auzoko berriak; herritarrak... Aktore amateur eta profesionalez osatutako lantaldeak jokatu ditu haien rola: Ramon Agirre, Amaia Arbeletche, Aline Etxeberri, Manex Fuchs, Ximun Fuchs, Xumai Gorostiaga, Arantxa Hirigoyen, Maitexa Iriarte, Jean-Marie Irigoin, Miren Tirapu, Iñaki Ziarrusta eta Oier Zuñiga. Bai zuzendaria bai obraren egilea Ximun Fuchs da. Estreinaldiaren ondoren, ekainaren 1ean, 2an, 7an, 8an, 9an, 14an, 15ean eta 16an eskainiko dute. Jarleku kopurua mugatua denez, erreserba tokiak@axut.eus helbidean egin behar da.

S
O
&
U
K
i
&
K
L
i
k

.EUS domeinuak, 10 urte



Apirilean bete zituen hamar urte .EUS domeinuak. 2014ko apirilaren 15ean sareratu zen lehen .EUS webgunea. Harrezkero, hazkunde nabarmena izan du: gaur egun, 15.000 enpresa, erakunde, proiektu eta norbanakoren espresio digitala da. Eragina ere handia du. "2023an egin dugun azken neurketak erakusten du Euskal Herriko Interneten dauden webguneen % 15ek hitz egiten dutela euskaraz; izan ere, .EUS diren webguneen % 70 euskaraz daude" azaldu zuen urteurren ekitaldian Josu Waliñok, domeinua kudeatzen duen PuntuEus Fundazioaren zuzendaria. Joan den hilean hasi ziren 10. urteurreneko ekitaldiak, eta urtea bukatu bitartean beste zenbait ekimen antolatuko dituzte. Gainera, urteurren biribila denez, eskaintza berezia ere sortu du domeinuak: *10 urte betetzen ditugula? Domeinuak 10 €-an, eta puntu (eus)*. Kanpainaren izenburuak berak azaltzen duen moduan, .EUS domeinuak 10 euroan erregistratu ahal izango dira, 2024ko abenduaren 31ra arte.



ZUBEROAKO PASTORALAK oinarri hartuta, Julia Fernandez Zabaleta. Emakume aitzindariak pastoral **ondu**⁵ du Iruñeko Zaldiko Maldiko kultur elkarteak, Julia Fernandez Zabaleta (Iruñea, 1898-1961) maistra euskaltzale eta feminista omentzeko helburuz. Mikel Tabernak idatzia, Iñaki Iriart du **errejenta**⁶. Berez, Zuberoako herri antzerki mota da pastoral, baina Iruñekoan egitura aldatu diote, Zuberoakoaren oinarriak erabiliko badituzte ere. Maiatzaren 4an estreinatuko dute, 17:00etan, Iruñeko San Frantzisko eskolako jolastokian, Fernandez Zabaletak

irakasle lan egin zuen ikastetxe berean, hain zuzen ere. Maiatzaren 12an, han bertan eskainiko dute berrito, 11:00etan.

1. **Zalditoki:** zaldiak egoten diren toki.
2. **Laborari:** nekazari, lurra lantzen duen pertsona.
3. **Jiran:** bueltan, inguruan.
4. **Zaharmin:** zahartzaroko min.
5. **Ondu:** sortu, eratu.
6. **Errejent:** pastoral zuzendari.

Albiste koskorak



MAIATZAREN 16, 17, 18 eta 19an izango da kale antzerkiaren Euskal Herriko hitzordurik nagusia: Leioako Umore Azoka, aurtengoa XXIV. edizioa duena. Ohi denez askotariko emanaldiak eskaintzeaz gain, profesionalentzat beren-beregi presta-

turiko jarduerak izango ditu, topaketak eta negozio bilera azkarrak, kasu. Ikuskitzunei dagokienez, aurten 41 konpainiak hartu dute parte: 18 euskal konpainia, beste 18 Espainiakoak eta 5 nazioartekoak. Ikusgai izango diren lanetako batzuk estreinaldiak izango dira. Egitarau zehatza ezagutzeko, jo www.umoreazoka.org gunera.

BERGARAKO Jardun Euskara Elkar-teak eta Goiena Komunikazio Taldeak bakarriketa lehiaketa antolatuta dute: *Algaraka*. Guztira, lau ekitaldi egingo dituzte maiatzean, Miren Nogales eta Jon Olivares aktoreek

MAIATZAREN 6an, 100 urte beteko dira Nestor Basterretxea (Bermeo, 1924 -Hondarribia, 2014) artista jaio zenetik. Mendeurrena ospatzeko, zenbait erakundek hainbat ekitaldi antolatuko dituzte urte osoan. Basterretxeari eskainitako webgunea ere abian jarri dute, *Artium* Museoak koordinatuta: <https://nestorbasterretxea100.artium.eus/eu/>. Atariak artistari buruzko informazio ugari biltzen du, bai alderdi biografikoak bai artistikoak: ikus-entzunezko baliabideak, mendeurrenako egitaraua...



EITBk Makusi jarri du abian, haur eta gaztetxoentzako euskarazko ekosistema digitala. Bi zutabe ditu Makusik. Batetik, plataforma digitala, gailu nagusietan eskuragarri dagoena eta ikus-entzunezkoen eskaintza zabala duena: marrazki bizidunak, fikzioa, telesailak, filmak... baita ekoizpen propioak ere. Bestetik, Makusi Kluba, kide egiten direnei abantaila ugari eskainiko dizkiena, hala nola zozketak, lehiaketak, ekitaldiak... Doakoa da Makusi, eta www.makusi.eus webgunean eskura daiteke.



aurkeztuta. Kanporaketak Bergaran, Urretxun eta Zumaian izango dira, eta finala Bergaran jokatu da, maiatzaren 31n. Saioen gaineko informazio gehiago, Algaraka.eus webgunean.

Udan ere euskaraz

Udan ere mintzataldeak osatuko ditugu, uztailean eta abuztuan; eta aukera dago hilabete batean edo bietan parte hartzeko.

Izen-ematea ekainaren 23 arte.

www.praktikatu.eus



EMAN IZENA

praktikatu
mintzapraktika
egitasmoak **æk**



Love Lies Bleeding

ISTORIA: AEBak, 1989. Jackie, kulturista moduan arrakasta lortu nahi duela eta, Las Vegasera abiatuko da lehiaketa batean parte hartzeko. Bidean, herri txiki bateko gimnasioko langile Lou ezagutuko du. Elkarrekin maitemindu, eta bi emakumeen artean harremana sortuko da. Bien bitartean, Louren familia makina bat arazo sortuko da, eta espero gabeko ondorio odoltsuak izango dituzte.

ZUZENDARIA: *Saint Maud* (2019) beldurrezko filmaren ostean, bigarren lan luzea du hau Glassek. Zinema aretoetan estreinatu aurretik, Berlingo zinemaldian eta Sundancen aurkeztu zuten, eta bietan izan zuen harrera ona. Bada kultuko filma izateko bidean dela dioenik ere.

ONENA: Maitasuna, indarkeria, odola, sexua, suzko armak, izerdia, autoak, gimnasioetako eta AEB sakoneko fauna, eta anabolizatzaileak. Osagaiak ez ezik, hainbat genero ere nahasten dituen **eltzea**¹ da

ZUZENDARIA: ROSE GLASS.

GIDOIA: ROSE GLASS, WERONIKA TOFILSKA.

AKTOREAK: KRISTEN STEWART, KATY O'BRIAN, ED HARRIS, JENA MALONE, DAVE FRANCO.

ERRESUMA BATUA - AEB, 2024.

filma: mendekuari buruzko thrillerra, familia drama, zinema beltza... Horri guztiorri, gehitu errealismo magiko eta umore beltz apur bat, baita *queer* eta *pulp* ezaugarri mordoxka ere. Eta aktore sortaren lan nabarmena. Horrelako osagaiekin, zaila aspertzea. Lapikoa **bor-bor**² izango da hasieratik, **irakiten**³ hasi eta **gainezka egin**⁴ arte. Hala irentsiko dugu filma, besteren artean *Thelma & Louise* (Ridley Scott, 1991), *Drive* (Nicolas Winding Refn, 2011) edo/eta Coen anaien lanak ekarriko dizkiguna gogora. Hori bai, dudarik gabe, Scotten lanetik baino askoz gertuago dago besteetatik, izerdi usain, desertuko hauts, alkohol eflubio eta odol zipriztinez beteta.



ALAIN ELIZALDE
AKTOREA

Gustuko duzun filma? *Trilogía del Baztan*. Misteriozkoa delako, eta Nafarroan grabatua.

Zuzendari bat? Daniel Calparsoro. Bere pelikulak gustuko ditut.

Askotan ikusi duzun filma? *Ocho apellidos vascos*.

Osorik ikusi gabe utzi zenuen...

Inoiz ez dut pelikularik bukatu gabe uzten.

Lagun bati ez zenioke inoiz gomendatuko...

Atentzioa ematen ez didan filmeren bat, ez dudalako iritzirik.

Gustuko duzun aktore bat?

Aitziber Garmendia.

Gustuko duzun telesaila? Ikusi dudan azkena: *Detective Touré*, Primeran plataforman euskaraz dagoena.

Zinemara bakarrik ala lagunduta?

Lagunduta. Zinemara bakarrik joatea oso aspergarria da.

Zinematik atera eta gero... Zer edo zer hartzera edo afaltzera. Aprobetxatu egin behar da.

Krispetak, bai ala ez? Batzuetan bai, baina ez beti.

Ikusi duzun azken filma? *El correo*.

Ikusi nahi duzuna? *Menudas piezas*.

Eta telesaila? *Ángela* eta *The Other Life*. Biak Bilbon grabatu ziren, iaz.

1. **Eltze:** *olla* (es), *casserole* (fr).

2. **Bor-bor:** *en ebullición* (es), *en ébullition* (fr).

3. **Irakin:** *hervir* (es), *bouillir* (fr).

4. **Gainezka egin:** *desbordar* (es), *déborder* (fr).



GezurAA esan nuen atarian...

Zer da adimen artifiziala? Makina bat erantzun posible dago: software bat, teknologia bat, arau matematiko eta estatistikoaren bilduma bat... Baina baita, ez dezagun ahaztu, produktu bat ere.

Enpresa batzuek bai beste enpresa batzuei bai norbanako erabiltzailei saldu nahi dituzten produktu bat ere bada adimen artifiziala. Eta, beste produktu askorekin bezala, honekin ere saltzaileek publizitate inbertsio erraldoiak egin dituzte. Halako xaboiak arropa elurra baino zuriago utziko dizu; honako konpresa honek hileroko mina kendu eta dantzatzeko gogoia emango dizu... eta adimen artifizialak idazteko, ikasteko eta laburpenak egiteko nekeak kenduko dizkizu, di-da. Gezur biribilak, bata bestearen atzetik.

Amazonek *dendaririk gabeko dendak* iragarri zituen 2016ko abenduan. **Bereizmen**¹ oso handiko eta aurpegiak zein objektuak identifikatzeko adimen artifizialeko sistema oso sofistikatuari esker, AEBetan dituen denda fisikoetan kutxatik pasatu gabe erosteko aukera eskaintzen zuen. Dendan sartutakoan zeure burua eta ordainketa modua identifikatu, apaletatik nahi duzuna hartu eta zuzenean irtenda, ordaintzeko

ilararik egin gabe. Sistema adimendunak dendatik atera duzun guztiaren zerrenda egin eta automatikoki kobra zezakeen.

Horrelako ehunka denda **barreiatu**² ditu Amazonek AEBetan, baina duela aste batzuk iragarri zuen sistema bertan behera utziko duela, garestiegia delako. Aitortu duenez, 2016tik hona ez du lortu sistema automatikoak behar bezala funtzionatzea, eta, azkenean, Indian 1.000 lagun baino gehiago kontratatu behar izan ditu AEBetako dendetan grabatutako irudiak aztertzeko, bezeroak eta erosketak banan-banan eskuz identifikatzeko, eta kobratzeak eskuz agintzeko. Hau da: ustez dendaririk gabeko denda haietan dendariak egon bazeuden... baina munduko beste puntatik zaintzen zituzten saltokiak.

Beharbada, gaiztoegia izatea da, baina nago hori ez dela izango adimen artifizialaren ahalmen zoragarriekin lotuta argituko diguten gezur bakarra. Eta espero dut dibertigarriena ere ez izatea!

1. **Bereizmen**: *resolución (es), résolution (fr)*.

2. **Barreiatu**: *propagar(se) (es), (se) propager (fr)*.

LOTURAK

<https://labur.eus/amazongo>

Informazio gehiago teknopata.eus blogean.

<https://labur.eus/zerdaAA>

Campus aldizkariko artikulu zientifiko bat, adimen artifiziala zer den eta zer ez den azaltzen duena.

<https://labur.eus/AAikagela>

Adimen artifiziala azaltzeko bideo bat, Ikusgela kanalean.

Egin zaitez **harpidedun**

IFK/NANA CIF/DNI..... **Izen-abizenak** Nombre y apellidos.....

Helbidea Dirección..... **Posta kodea** Código postal.....

Udalerrria Localidad..... **Posta elektronikoa** Correo electrónico.....

Herrialdea Provincia..... **Telefono zenbakia** Teléfono.....

Harpidetza..... Paperezkoa Digitala Paperezkoa+digitala **Sinadura** Firma

Ordaintzeko era Forma de pago

Banku bidez Domiciliación bancaria

IBAN _____ (24 digitu)

aizu.eus atarian
ere egin dezakezu
harpidetza

Informazioa gure fitxategien gordeko da, eta isilpekoa da. Interesdunak aldatu edo ezabatu egin dezake. Datuak Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteko Lege Organikoaren arabera zaindu eta erabiliko dira.

La información será guardada en nuestro fichero, y es confidencial. La persona interesada puede modificarla o suprimirla. El control y tratamiento de los datos se realizará en base a la Ley Orgánica de Protección de Datos Personales.

* Kontrakorik agindu ezean, harpidetza urtero berrituko da. En caso de no notificar lo contrario, la suscripción se renovará anualmente.

URTE OSOKO HARPIDETZA

Paperezkoa:

Hego Euskal Herria eta Espainia: **33 €**

Ipar Euskal Herria: **40 €**

Europa: **54,5 €**

Digitala: **23 €**

Paperezkoa+digitala:

Hego Euskal Herria eta Espainia: **38 €**

Ipar Euskal Herria: **45 €**

NAFARROA KAPITAINA

ETA PETILLA KOMANDANTEORDEA



berria fm

PODCASTA

Ziklo berria

**Kazetaritza
feminista**
erraietan
eta uhinetan

UXUE Rey

ANE Eslaba

**Hamabostean behin, asteazkenez,
Berria.eus/podcast webgunean eta plataformetan entzungai.**

BIZI EUSKARA HURBILETIK



2024 UDAKO EUSKARA IKASTAROAK



EUSKALTEGIAK

Ikastaro trinkoak
Etxe ondoan
Euskara ikasteko
Azterketak prestatzeko



FAMILIA BARNETEGIAK

Euskara ikasteko
Seme-alabekin
euskaraz aritzeko



2 ASTEKO BARNETEGIAK

Euskara eskolak
Euskaraz bizitzeko
Azterketak prestatzeko
Udako ibiltaria



ONLINE IKASTAROAK

A1, A2, B1,
B2, C1, C2



PRAKTIKATU

Udan ere,
mintzalagunak
martxan; hurbildu zure
euskaltegira

673 200 100 / 946 464 000

www.aek.eus

